

ДЦЯРЯД
LANGILERIA

BAKE FALTSUARI GERRA

MARXISMO-LENINISMOA **ETA NAZIO-AUZIA**



2021eko abendua, Euskal Herria

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
NAZIO-AUZIA KAPITALISMO GORAKORREKO GARAIAN.....	4
NAZIOEN AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEA.....	8
Errusiar iraultza: ESSB.....	13
Mongolia.....	15
NAZIO-ASKAPEN BORROKAK: KOLONIAK VS EUROPA?.....	16
Irlanda.....	19
LANGILERIAREN ALDERDIAREN ANTOLAKUNTZA-EREMUA.....	21
Alderdi Herrikoiei Mongoliarra.....	21
Irlandako Alderdi Komunista.....	21
Egiptoko Alderdi Komunista.....	22
Alderdi Komunista Aljeriarra.....	22
Koreako Alderdi Komunista.....	22
Txinako Alderdi Komunista.....	22
Kataluinako Alderdi Sozialista Bateratua.....	22
Yugoslaviako Alderdi Komunista.....	23
Albaniako Alderdi Komunista.....	23
Behargin-Alderdi Poloniarra.....	23
Alderdi Komunista Indotxinatarra.....	24
IRAULTZA SOBIETIKOA ETA AUZI KOLONIALA.....	25
Vietnam.....	27
Korea.....	28
Txina.....	28
Kuba.....	29
ASKAPEN NAZIONALA ETA IRAULTZA SOZIALISTA.....	30
Txekoslovakia.....	31
Polonia.....	32
Yugoslavia.....	32
Albania.....	33
ABERTZALETASUNA ETA INTERNAZIONALISMO PROLETARIOA.....	34
ESSB: Aberri Gerate Handia.....	36
SOZIALISMOAREN ERAIKUNTZA HERRIALDE BAKOITZEAN.....	37
Yugoslavia: Tito.....	39
Txina: Mao.....	40
ESSB: Khrustxov.....	40
NAZIOEN BAT-EGITEA ALA NAZIOEN EZABAPENA?.....	41
ESSB: 'korenizazioa' eta errusifikazioa.....	43
Georgia.....	43
ONDORIOAK.....	44

SARRERA

Aurrera Langileria euskal antolakunde marxista-leninista, internazionalista proletario eta abertzaleak nazioarteko mugimendu komunistaren historian nazio-auziak izandako garapenaren azterketa kritikoa plazaratuko du hurrengo lanean. Aldez aurretik ikuspegi teorikoaren azterketa egin genuen arren, oraingoan arlo teorikoan sakondu eta kasu praktikoak ere aztertuko ditugu, bere garaian iragarri genuen bezala.

NAZIO-AUZIA KAPITALISMO GORAKORREKO GARAIAN

Marx eta Engels-ek Sozialismo Zientifikoaren mundu-ikuskerara, ideologia burgesarekiko haustura kualitatiboa dakarrena, sortu eta honen oinarriak finkatu ondoren, hau arlo ezberdinetan garatzen joan zen. Hala izan zen nazio-auziaren eremuan ere. Honen inguruko berariazko azterketa egin ez bazuten ere, hainbat kasuekiko hartutako kokapenean eta haien arteko gutunetan idatzitakoa aztertuz beren ikuspegi orokorra ondorioztatu daiteke.

Kapitalismoaren hedapenarekin munduan zehar muga nazionalen gainetik interes komunak zituen klasea, behargin-klasea hain zuzen ere, sortu zen. Marx eta Engels-ek hau aldarrikatu zuten internazionalismo proletarioaren oinarri bilakatuko zen leloarekin: ‘Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitetzete!’. Hasieran kutsu kosmopolita edo anazionala ematen bazioten ere, ‘Manifestu Komunistan’ bertan klase-borroka honek dimentsio nazionala ere bazuela adierazi zuten.

“Komunistoi aberria eta naziotasuna deuseztatu nahi izatea ere leporatzen zaigu.

Beharginek ez dute aberririk. Ezin zaie kendu ez daukatena. Hala ere, proletalgoak lehenik eta behin botere politikoa erdietsi behar duenez, klase nazionaleko egoerara jaso, nazio gisa eratu behar denez, argi dago zentzu nazionala ere daukala, baina inola ere ez burgesiaren zentzuan.

Isolamendu nazionala eta herrien arteko antagonismoak desagertu egiten dira egunez egun, burgesiaren garapenarekin, merkataritza-askatasunarekin, munduko merkatuarekin, ekoizpen industrialean nagusi den uniformetasunarekin eta sortzen dituen bizi-baldintzekin.

Proletalgoaren nagusitasunak arinago desagerraraziko ditu. Proletarioen baterako ekintza, herrialde zibilizatueta behintzat, emantzipatzeko lehen baldintzetako bat da.

Gizabanako batzuen esplotazioa beste batzuen partez deuseztatzen den neurri berean, nazio batzuen esplotazioa beste batzuen partez ere desagertuko da.

Klaseen aurkakotasunarekin batera nazio bakoitzaren baitan, nazioen arteko etsaitasuna haien artean ezabatuko da.”

Alderdi Komunistaren Manifestua (1848) – Marx eta Engels

Marx eta Engels kapitalismoaren garai gorakorrean (aurre-monopolista, inperialista bilakatu aurrekoa) bizi izan ziren, kapitalismoa era gutxi gorabehera uniformeaz garatzen zen, oraindik ezarri ez zen tokietara hedatzen ari zen eta bere ‘garapen desberdinen legea’ argiro hautematen ez zen baldintza historikoetan. Horregatik iraultza sozialista lehenik kapitalismoa gehien garatu zen, eta ondorioz, langileria ugariena zuten Mendebaldeko nazioetan (AEB, Ingalaterra, Frantzia...) emango zela uste zuten. Ondorioz nazio “zibilizatu” hauen hedatze eta bateratze prozesuak babestu zituzten, beste herri “basati” edo Estatu batzuen kontura bazen ere.

Germaniako kasuan, adibidez, Engels-ek errepublika bakarrean bateratzea babestu zuen, honek beste herri batzuk irenstea suposatzen bazuen ere. Bere ustez Germaniak zibilizazioa zekarren eta Ekialdeko lurren, Poloniakoak batez ere, “germanizazioaren” alde agertu zen (kolonoen bidezkoa

ere). Txekiarrei buruz, bere iritziz haien bizindarra galdu zuten, handik aurrera soilik Germaniaren parte gisa existitu ahal zirelarik.

Garai honetan Europan oraindik gainegitura feudalak zituzten Estatu monarkikoak zeuden (Prusia, Austria eta batez ere Errusia tsarista), eta hauen aurkako mugimendu nazionalak eta iraultza demokratiko-burgesak babestu zituzten (Germania, Italia, Hungaria...). Germanian, gainera, iraultza burgesetik iraultza proletariora igaro zitekeela uste zuten. Bestalde, “erreakzioaren aitzindari-herrien” aurka agertu ziren, hauek tsarismoaren erraminta zirelakoan, eta “paneslavismoaren” kontra kokatu ziren.

Baina desberdinketa hau ez zen soilik egoeraren araberakoa. Marx eta Engels-ek Europako “herri historikoak”, izate nazional independenterako gai zirenak, handiak eta trinkoak, Estatu “bideragarriak” sortzeko baldintzak zituztenak; eta “historiarik gabeko herriak”, txikiak eta bizindarririk gabekoak, kapitalismoan beste nazioek xurgatu eta desegin behar omen zirenak desberdintzen zituzten. Historiaren ikuspegi lau honen arabera “hiltzorian zeuden” herri “atzerakoi” hauen “hondarrak” jada ezin ziren garatu eta “kontrairaultzaren eramaile” bilakatzen ziren, haien etorkizun bakarra aurrerapen historikoaren eramaile zen atzerriko zapalkuntzapean desagertzea izanik. Metafisika ukitzen duen pentsamolde aldebakar hau gainditu gabeko Hegel-en ideologiaren herentzia zen (Marx eta Engels ‘ezkerreko hegeliarioak’ izan baitziren gaztetan). Herri hauek eslaviarrak ziren gehienbat: hegoaldekoak (yugoslaviarrak), bulgariarrak, errumaniarrak, ukrainiarrak, txekiarrik... baina baita eskoziarrak, galestarrak, bretoiak edota euskaldunak ere.

Poloniako kasuan, aldiz, Marx eta Engels-ek honen independentzia babestu eta bere matxinada nazionalak atzerriko uztarriaren aurka agertu zituzten. Mugimendu nazional hau (edo nazionalismoa, zehaztugabeki erabiltzen baitzuten), hasieran aristokratek zuzentzen bazuten ere, onuragarria zen iraultzak demokrazia (burgesa) ezarri eta klase zapalduen egoera, nekazariena gehienbat, hobetuko zuelako. Gainera, berau Austria, Prusia eta Errusia artean zapaldua egonik, Europako iraultza indartuko zukeen.

Langileen Nazioarteko Elkartean (I. Internazionala, Mendebaldeko hainbat herrialdeetako antolakunde ezberdinez osatutakoa) baziren, ordea, nazio-auzia langileriaren borrokarekin zerikusirik ez zuela ziotenak, batez ere Proudhon anarkista frantziarra. Horregatik Marx-ek Engels-i eskatu zion autodeterminazio-eskubidean oinarritutako Poloniaren aldeko ebazpena defendatzea. Honek langileriaren nazioarteko mugimendua nazio burujabeen artean soilik eman zitekeela, nazioarteko elkarlana soilik berdinen artean izan zitekeela edo zapalkuntza nazionalak barneko klase-borroka ezinezkoa egiten zuela argudiatu zuen hau babesteko. Baina Engels-ek nazioen independentziarako eskubide demokratikoa “nazionalitateen printzipioaz” desberdintzen zuen (hau ere errusiar tsarismoaren asmakizuna omen zen, “paneslavismoa” azken batean). Beraz, Poloniaren independentzia Estatu baten “berrezarpena” besterik ez litzateke izango. Gainera, honetan beste herri batzuk sartzen zituen (ukrainiarrak, bielorrusiarrak, lituaniarrak...).

“Ingelesek barre algara handia egin zuten nire hitzaldiari ekin nionean esanez Lafargue gure lagunak, eta abar, nazionalitateak ezabatu dituztenak, "frantsesez" hitz egin zigula, hau da,

entzuleen bederatzia hamarrek ulertzen ez zuten hizkuntza. Era berean iradoki nuen nazionalitateen ukapenaz, era oharkabeaz, haien xurgapena nazio frantses eredugarrian ulertzen zuela.”

Engels-i gutuna (1866) – Marx

Aztertu beharreko beste kasu esanguratsu bat Irlandakoa da. Hasiara batean Marx eta Engels Erresuma Batuen alde kokatu baziren ere, honek langileriaren batasuna iraultza sozialistaren alde ziurtatuko zuelakoan, aurrerago autokritika egin eta irlandarren aldarrikapen nazionalak babestera igaro ziren.

“Behin uste izan nuen Irlanda Ingalaterratik bereiztea ezinezkoa zela. Orain ekidinezina iruditzen zait, nahiz eta banaketa ondoren federazioa etorri.”

Engels-i gutuna (1867) – Marx

Marx-en ustez I. Internazionalaren lehentasuna Ingalaterran iraultza soziala bultzatzea zen, eta horregatik zen beharrezkoa Irlandako independentzia: honek nekazal-iraultza piztuko zuen, aristokrazia lurjabe ingelesa ahulduz, eta langile irlandar eta ingelesen arteko etsaitasuna apalduko zuen, nazioarteko borroka indartuz. Gainera, Irlandaren okupazioak gero behargin ingelesen aurka erabiltzen zen ejertzitza izatea ahalbidetzen zuen, “beste herri bat zapaltzen duen herria ezin da aske izan” leloa egi bilakatuz, hots, bere kate propioak eraikitzen dituela.

“Beraz, nire iritziz Europan bi nazio daude, ez bakarrik nazionalista izateko eskubidea baizik eta betebeharra ere dutenak internazionalista bilakatu aurretik: irlandarrak eta poloniarak. Mota hobereko internazionalistak dira oso nazionalistak badira.”

Kautski-ri gutuna (1882) – Engels

1870. urtean Frantzia eta Prusiaren arteko gerra hasi zen. Engels-ek jarrera “defensista” hartu zuen bere ustez “frantziar txobinismoak” Germania existentzia nazionalaren aldeko guda batera bultzatu zuelako. Nahiz eta Prusia Estatu absolutista izan, germaniar batasun nazionala ezartzen ari zen, eta honen porrotak hautsi egingo luke. Ondorioz germaniar behargin-mugimendu burujabea zapuztu eta izate nazionala berreskurtzeko borroka dena hartuko luke, kasurik onenean langile frantziarren atzetik joatera behartuz. Beraz gerran sartzea babestu zuen, hurrengo baldintzekin: interes nazionalak eta dinastikoak desberdintzea, Alsazia eta Lorenaren anexoaren aurka egotea, Frantzian ez-txobinistek agindu bezain laster bakea sinatzea eta langile germaniar eta frantziarren arteko interesen batasuna azpimarratzea, ez baitzen haien arteko gerra. Edonola ere, Marx-en kokapena gailendu zen eta I. Internazionala gerraren aurka agertu zen. Frantziaren porrota eta gero Parisko Komuna aldarrikatu zenean, honek haien babes osoa izan zuen.

Kolonien inguruan, Marx eta Engels-ek hauen ustiapenak kapitalismoaren ‘jatorrizko metaketan’ izan zuen garrantzia aztertu zuten (Amerika batez ere, baita Afrika). Potentzia kolonialistek (Espainia, Portugal, Frantzia, Ingalaterra...) hauetan egiten zituzten sarraskiak eta jukutriak salatu zituzten, baina aldi berean, lehengaiak ateratzeko garatutako industriak eta mundu-merkatura batzeak, ekonomia patriarkar eta aurre-kapitalisten suntsipena ekarri zutenak, izandako aurrerapena ospatu zuten (India, Txina, Persia...). Koloniek nazio (burges) gisa independizatzeko aukera ere

aurreikusten zuten, baina iraultza sozialerako itxaropena orokorrean “herri aurreratuenetako” (metropolietako) langilerian jartzen zuten.

Honen harira, langile-aristokraziaren eraketa igarri zuten ere, esplotazio kolonialari esker klase-antagonismoak leundu eta egoera pribilegiatua zuen geruza sortu baitzen, langileria ingelesa burgesiaren kokapenetara gerturatzea zekarrena.

“Galdetzen didazu ea zer pentsatzen duten politika kolonialaz behargin ingelesek. Bada politikaz orokorrean bezala, burgesek pentsatzen duten berdina. Hemen ez dago behargin-alderdirik, alderdi kontserbadorea eta alderdi liberal-erradikala besterik ez dago, eta beharginek lasai asko ateratzen diote etekina haiekin Ingalaterraren monopolio kolonialari eta hark munduko merkatuan duen monopolioari. Nire aburuz, koloniak adiera hertsian, hau da, europar biztanleria batek okupatutako herrialdeak: Kanada, Lurmuturra, Australia, denak independente bihurtuko dira; aitzitik, menpean baino ez dauden herrialdeak, indigenak jendeztatuta, hala nola India, Aljeria eta jabetza holandar, portugaldar eta espainiarrak, proletalgoaren esku geratu beharko dira behin-behinean, independentziara ahalik eta azkarren eramango dituenak. Zaila da esatea prozesu hori nola garatuko den. Indiak agian iraultza bat egingo du, litekeena ere bada, eta, emantzipatzen den proletalgoak gerra kolonialak mantendu ezin dituenek, etsi egin beharko da; hori ez da gertatuko, noski, suntsipenik gabe, baina iraultza orori berezkoak dira. Gauza bera gerta daiteke beste leku batzuetan, Aljerian eta Egipton, adibidez, gainera guretzat onena litzatekeena. Nahikoa lan izango dugu gure herrialdean. Europa eta Ipar Amerika berrantolatu ondoren, horrek hain indar handia emango dio eta hain adibide handia izango da, non herrialde erdi-zibilizatuek beraiek jarraituko baitute gure bidea; horretaz arduratuko dira eskaera ekonomikoak, inoren laguntzarik gabe. Antolakuntza sozialistara ere iritsi aurretik herrialde horiek igaro beharko dituzten fase sozial eta ekonomikoak, nire ustez, ezin dira nahiko alferrikako hipotesien xede besterik izan. Gauza bat ziurra da; proletalgo garaileak ezin dio zorionik ezarri atzerriko ezein herriri bere garaipena arriskuan jarri gabe. Ongi ulertuta, horrek ez ditu inola ere baztertzen mota ezberdineko gerra defentsiboak.”

Kautski-ri gutuna (1882) - Engels

Baieztaatu dezakegu Marx eta Engels-en ikuspegia orokorrean zuzena bazen ere, azterketa zehatzean guztiz okertu zirela, ez soilik nazionalitate txikien edo oraindik garatu gabeko nazioen bizindarrari eta Estatu osatzeko bideragarritasunari buruz, baizik eta etorkizunean (batez ere hurrengo mendean) herri batzuek zein besteek izango zuten eginkizunaren inguruan. Esan daiteke haien ikuskera internazionalista beren joera nazionalista propioez zipriztinduta zegoela, II.

Internazionalismoaren aldeko sozialdemokraziak bere txobinismoa justifikatzeko baliatu zuenak.

Esperientzia praktikoa aztertzerako orduan ez daukagu adibiderik, Parisko Komunaren iraultza saiakera bakarrik eman baitzen eta hau ez zen hiriko eremutik haratago atera.

NAZIOEN AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEA

Errusiako Behargin-Alderdi Sozial-Demokratik 'nazioen autodeterminazio-eskubidea' onartu zuen 1903ko bere II. Biltzarrean, Rosa Luxemburg poloniarra aurka agertu bazen ere. II. Internazionalak jada onartu zuen 'nazio guztien autodeterminaziorako eskubide osoaren' aldeko ebazpena 1896an. Handik aurrera honek eztabaida handiak eragingo zituen mugimendu sozialistaren baitan. Horregatik Lenin-ek Vienan erbestean zegoen Stalin militante boltxebike georgiarrari nazio-auziari buruzko lana idaztea eskatu zion.

1913an 'Marxismoa eta nazio-auzia' lana argitaratu zen. Honetan Stalin-ek nazioaren definizioa plazaratu zuen materialismo dialektikoan oinarrituz. Berarentzat nazioa ez zen arrazan edo tribuan oinarritzen, ezta noizbait inperio baten parte izatean ere, eta ezin zen existitu hizkuntza, lurralde zehatz bat edo bere kideen arteko lotura ekonomikorik gabe, herriaren kulturari islatzen zena.

Adibidez, Stalin-ek ez zituen juduak nazio gisa hartzen, guztien arteko lurralde komun bat ez izateagatik, edo Baltikoko germaniarrak eta letoniarrak nazio desberdinak zirela zioen, hizkuntza desberdinak mintzatzeagatik. Izan zitekeen ere hizkuntza bera izanda bi nazio desberdin izatea, ingelesak eta irlandarrak bezala, edo norbegiarrak eta daniarrak.

“Nazioa giza-komunitate egonkorra da, historikoki eratua eta hizkuntza-, lurralde-, bizitza ekonomiko- eta psikologia-komunitatean oinarrituta sortua, azken hau kultura-komunitatean agertuz.

Gainera, berez ulertzen da nazioa, fenomeno historiko oro bezala, aldaketaren legearen mende dagoela, bere historia, bere hasiera eta bere amaiera dituela.

Azpimarratu behar da adierazitako ezaugarrietako bat bera ere, banaka hartuta, ez dela nahikoa nazioa definitzeko. Are gehiago: nahikoa da ezaugarri hauetako bat bakarrik ere falta izatea, nazioak nazio izateari utz diezaion.”

Marxismoa eta nazio-auzia (1913) – Stalin

Kapitalismoa garatu aurretik ez zegoen naziorik, ez zeudelako merkantzia-sarea eta komunikabideak behar adina garatuta herri batek bizitza ekonomiko komun bat izateko. Garai aurre-kapitalistan bazueden herriak, historian zehar ezaugarri hauek sortzen joan zirenak. Baina guztiak ez ziren industrialki garatu eta ondorioz nazionalitateak edo populuak izaten jarraitu zuten. Bere definizioaren arabera nazio batzuk izateari utzi edo desagertu daitezke ere, edota oraindik ez direnak eratu. Stalin-ek ez zuen Estatu burujabe bat izatea, edo aurretik izan izana, nazio izateko baldintza gisa ipintzen. Are gehiago, hau ez izatea nazio-zapalkuntzaren arrazoietako bat zen.

Nazioak eta mugimendu nazionalak kapitalismo gorakorrean sortzen hasi ziren. Europako Mendebaldean honek nazio-Estatuak sortzea ekarri zuen (Irlandaz gain Stalin-ek ez zuen ezagutzen beste naziorik honetatik kanpo geratu zenik). Ekialdean, ordea, kapitalismoaren garapen urriak eta gainegitura feudalaren iraupenak Estatu multinazionalak eratu zituen, non nazio menderatzaile bat besteen gainetik zegoen. Baina kapitalismoa garatu ahala gainontzekoetan mugimendu nazionalak

sortu eta orduan hasi zen nazio-zapalkuntza. Stalin-entzat borroka hauek burgesien artekoak ziren, nahiz eta langileek edo nekazariak honetan parte hartu. Proletalgoak bere bandera propioa zuen, eta ez zuen burgesiaren atzetik joan behar. Garai honetan, aurrerago onartuko zuenez, mugimendu nazionala soilik burgestzat zuen.

Honek ez zuen esan nahi langileriak zapalkuntza eta errepresio-politika honen aurka borrokatu behar ez zuenik, honek beharginei burgesi bezainbeste (edo are gehiago) eragiten baitzien eta gainera Estatuko nazio guztietako langileak batzea oztopatzen baitzuen. Horregatik zen beharrezkoa nazioen autodeterminaziorako eskubide demokratikoa aldarrikatzea, hots, bortizkeriarik gabe bere etorkizuna burujabeki erabakitzeko eskubidea.

“Autodeterminazio-eskubideak esan nahi du nazioa bere nahien arabera antola daitekeela. Bere bizitza autonomiaren printzipioen arabera antolatzeko eskubidea du. Beste nazio batzuekin harreman federatiboetan sartzeko eskubidea du. Erabat banatzeko eskubidea du. Nazioa subiranoa da, eta nazio guztiak berdinak dira eskubideetan.”

Marxismoa eta nazio-azua (1913) – Stalin

Hala ere langileriarentzat kaltegarriak ziren ohitura eta aldarrikapen nazionalen aurka borrokatu beharra zegoen. Politika honen helburua nazioen arteko borroka gutxitzea zen. Beraz babestu beharreko aukera gehiengoaren interesak, eta batez ere langileriarenak, kontuan hartuz egin behar zen, dialektikoki, nazio bakoitzean aldagarriak ziren baldintza historikoen arabera.

Hau Estatuaren demokratizazioarekin lotzen zuen Stalin-ek. Berarentzat Errusian nazio-azuiak bigarren mailako garrantzia zuen eta nekazari-azuiari azpiratua zegoen. Halere “Errusiako nazionalitatearen” batek independentzia nahiko balu ez luketela honetarako oztoporik jarriko **zioen**. Estatu multinazionalaren parte izaten jarraitu nahi zutenentzat, ordea, eskualde-mailako autonomia zen konponbidea. Garapen oso urriko nazionalitateetan kultura gorena zuen mugimendura batu behar ziren. Nazio bakoitzean zeuden gutxiengoaren eskubide nazionalak (hizkuntza etab.) ere errespetatu behar ziren. Beste lan batzuetan, Errusiako kasuan Stalin banaketaren aurka soilik ez, baizik eta federazioaren aurka ere agertu zen (Lenin bezala).

Liburu honetan Stalin-ek ‘autonomia nazional-kulturala’ zelakoari aurre egin zion baita ere: teoria honek naziotasunaren alde kulturala soilik zuen kontutan eta hiritarrak honen arabera sailkatzen zituen, lurralde-printzipioari jaramon egin gabe, baina betiere Estatu berdinen barnean eta autodeterminazio-eskubideak aitortzen zuen banaketarako aukera ukatuz. Austriako sozialdemokrazia izan zen honen sortzailea. Gainera nazio-azua era erreformistan planteatzen zuen, parlamentu bidezko aldaketa txiki bidez, eta ez era iraultzailean, demokratiko-burgesa bazen ere. Errusian bereziki Bund-ak, langile “judutarren” antolakundeak, babesten zuen. Stalin-en arabera teoria honek nazionalitateen arteko talkak areagotu eta beharginen arteko elkartasuna ahultzen zuen.

Lenin-ek, guzti hau oinarritzat hartuz, eztabaida ugari izan zituen oportunisten kontra nazioen autodeterminazio-eskubidearen defentsan, hala Bund-aren nazionalismo burges ttipiaren nola Luxemburg-en desbideratze ekonomizista-inperialistaren aurka.

Lenin-entzat autodeterminazioa eskubide demokratikoa zen, banaketaren edo Estatu nazional independente baten sorkuntzaren ingurukoa. Hau nazio zapalduari zegokion eta ez Estatu zapaltzaileko parlamentuari (dibortzio-eskubidearekin parekatzen zuen).

Adibide gisa Norbegiaren kasua ipintzen zuen Lenin-ek, erreferendum bitartez Suediatik independizatzeko erabaki zuenak, monarkia baten forman izan bazen ere (Errepublikaren aldeko erreferendumean ezekoa gailendu zen). Aurrerago inperialismoan halako kasuak salbuespena zirela esango zuen. Lenin-ek ez zekien ea elkarbizitza harreman ekonomikoak oztopatzeraino ezinezkoa bihurtu zen Norbegiako langileriak independentziaren alde bozkatzeko justifikatuta egoteko. Baina haren esanetan behargin suediarrek galdeketa hau babestu izanak langileen arteko batasuna eta elkartasuna indartu zituen, bi Estatutan banatu baziren ere. Hau zen nazio zapaltzaileko langileriak mugimendu nazionalen aurrean izan beharreko jarrera, bere burua sozialistatzat izan nahi nazuen behintzat.

Beraz erabakitzeko eskubide hau ez babestea, bortizkeria bidezko atxikitze honen, behartutako anexo honen aurka ez kokatzea, jarrera atzerakoiaren babestea izango litzateke, txobinismoan jaustea. Honek ez zuen baztertzen banaketaren edo nazionalismo burgesaren aurkako asaldura egitea. Nazio zapalduko burgesiak nazio zapaltzailearen aurka borrokatzen zenean hau babestu behar zela zioen Lenin-ek, baina honen pribilegio-nahien kontra kokatuz. Honen helburua garapen ekonomikoa hobeto ziurta zezakeen egoera sortzea eta behargin-klasea eta bere mugimendua indartzea izan behar zuen.

Luxemburg-ek, aitzitik, potentzia kapitalisten harrapaketa-nahiak eta nazio batzuek besteak ekonomikoki zanpatzeak nazioen autodeterminazioa ezinezkoa bihurtu zutela zioen, independentzia politikoaren auzia independentzia ekonomikoarekin nahastuz. Bera ez zen soilik Poloniaren independentziaren aurka kokatzen (bai Lenin eta bai Stalin egoera hartan zuzentzat zutena), baizik eta honek erabakitzeko aukera izatearen aurka ere.

“Rosa Luxemburg-ren akats komikoaren gakoa da, zeinarengatik germaniar eta errusiar sozialdemokrazian aspaldi egin zioten iseka (1903ko abuztua), preseski nazio zapalduetako nazionalismo burgesari joko egiteko beldurragatik, nazionalismo burgesari ez ezik, nazio zapaltzailearen nazionalismo ultra-atzerakoiari ere mesede egiten diola.”

EBASDren programa nazionalaren inguruan (1913) – Lenin

Beraz langileriak, nazioen berdintasunerako eta nazioarteko batasunerako, autodeterminazio-eskubidea soilik aldarrikatu behar zuen, hori ez egitea Estatu izateko nazio menderatzailearen pribilegioa babestea izango litzakeelako. Baina ez zuen alde aurretik kokapen zehatzik hartu behar, bestela burgesiaren politikan eroriko litzakeelako, nazioarteko elkartasuna ahulduz. Lenin-entzat (Stalin-entzat ez bezala), behargin kontzienteari berdina zitzaien bera zapaltzen zuen Estatu nazio batekoa ala bestekoa izatea, berdina-berdina esplotatua jarraitzen zuelako, eta kasu batean zein bestean kapitalismoak garatzen jarraituko zuelako.

Halere, Lenin-ek Estatu nazional handiak hobesten zituen, kapitalismoaren garapenarentzat hobeak zirela jotzen zuelako, burgesiaren eta langilariaren bateratzearentzat eta haien arteko klase-borroka

emateko (masen interes ekonomikoentzat hobeak zirela ere esan zuen). Ondorioz deszentralizazioaren eta federazioaren aurka kokatu zen. Zentralismo hau eskualde-mailako autonomiarekin era demokratikoan uztartu behar zen, hori bai. Honetan ere Luxemburg-i aurre egin behar izan zion, autonomia Poloniarako “eskubide eskusiboa” zela frogatzen saiatu zena.

“Eta Marx eta Engels-en aipua berrirakurtzean, nabaritasun argiz ikusten da Rosa Luxemburg-ek bere burua jarri duen egoera barregarria. Larritasunez eta hitz-jario handiz predikatzen du herrialde desberdinetako garai ezberdinetako historian kokatutako arazo nazionalaren azterketa zehatza egin behar dela, eta berak ez du ahalegin txikiarik egiten zehazteko zein den kapitalismoaren garapenaren fase historikoa, Errusiak XX. mendearen hasieran zeharkatzen duena, zein diren herrialde honetako arazo nazionalaren berezitasunak.”

Nazioen autodeterminazioarako eskubidea (1914) – Lenin

Bere lehen idazkietan, kapitalismoaren fase inperialistaren inguruko lana idatzi baino lehenagokoak, Lenin-ek, Stalin bezala, bi alditan banatzen zuen nazio-auzia: fase gorakorra, non feudalismotik kapitalismorako iragatean mugimendu nazional demokratiko-burgesak eta nazio-Estatuen ezarpena araua ziren; eta kapitalismo heldua, non hauen garaia igaro, nazioen arteko desberdintasunak desagertu, burgesiaren eta langileriaren arteko nazioarteko borroka lehen lerrora ekarri eta sozialismoaren aldeko borroka hasten zen. Marx eta Engels-en kokapena, alegia.

Horregatik zioen Mendebaldeko Europan (Austrian adibidez) alderdi sozialistek ez zutela autodeterminazio-eskubidea haien programetan jasotzen, garai hau bukatuta zegoelako (nahiz eta hauen baitan aldarrikapen nazionalak aurkezten zituztenen existentzia onartu). Ekialdean (bai Europakoa bai Asia osoa), aldiz, garai hori hasi berri zen, eta ondorioz beharrezkoa zen. Errusia tsaristan bereziki, non biztanleriaren gehiengoa kanpoaldeko herri zapalduetakoa zen, jasaten zuten zapalkuntza nazionala inguruko Estatuetakoa baino gogorragoa zen eta haietan kapitalismoa gehiago garatuta zegoen.

Baina kapitalismoa bere fase gorenean, azkenean, inperialistan sartzerakoan zapalkuntza nazionala eta koloniala areagotu zen. Inperialismoak demokraziaren urraketa zekarren, honen aldarrikapenen (autodeterminazioa barne) egikaritzea salbuespena bihurtuz. Beraz aldarrikapen demokratikoak (autodeterminazioa bereziki) iraultza sozialistaren alde erabili behar ziren, azken honi azpiratuz. Potentzia inperialista batek autodeterminazioa bere alde erabili ahal izatea ezin zuen eraman honen defentsa baztertzera ezta ere, beste edozein eskubide demokratiko bezala.

Orduan Lenin-ek banaketa berri bat ezarri zuen nazio-auziaren inguruan: Mendebaldea, Europako ekialdea eta koloniak.

“Lehenik eta behin, mendebaldeko Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako herrialde kapitalista aurreratuak. Mugimendu nazional burges-aurrerakoiak aspaldi amaitu ziren hauetan. Nazio handi hauetako bakoitzak beste batzuk zapaltzen ditu kolonietan eta herrialde barnean. Nazio menderatzaileetako proletar goaren zereginak Ingalaterrako proletar goak XIX. mendean Irlandarekiko zituen berberak dira.”

Iraultza sozialista eta nazioen autodeterminazioarako eskubidea (1916) – Lenin

Zer esan nahi zuen Lenin-ek honekin? Bada koloniez gain, Mendebaldeko nazio-Estatuen baitan mugimendu nazionalen bat agertuko balitz, (nazio zapaltzaileko) langileriaren betebeharra nazio zapaldu honen independentzia babestea izango litzakeela, Marx-ek Irlandako kasuan egin bezala.

Ekialdeko Europan (Austria, Balkanak, eta batez ere Errusia), aldiz, mugimendu nazional demokratiko-burgesen aldiaren egonik, egiteko nagusia autodeterminazio-eskubidea defendatuz nazio zapaltzaileetako eta zapalduetako beharginen klase-borroka batzea zen.

Kolonietan, non mugimendu nazionalak duela gutxi hasi berri ziren, erabateko eta berehalako askapena galdegiteaz gain, mugimendu hauetako ale iraultzaileenak babestu eta potentzia inperialisten aurkako matxinada lagundu beharra zegoen.

Kapitalismoaren fase inperialistak herrialde aurreratuenetako txobinismoaren aurka borrokatzeko beharrezko garrantzia azaleratu zuen. Lenin-ek honi ekin zion, ez soilik ageriko sozial-txobinisten aurka bazik eta autodeterminazio-eskubidea hitzez soilik eta era hipokritan defendatzen zutenen aurka ere. Hauek ez zuten mintzatu nahi burgesia inperialistak bortizkeria bidez ezarritako Estatu-mugen inguruan.

“Eta orain, Lensch-en tankerako sozialinperialista frankoak autodeterminazioaren eta anexoak ukatzearen aurka daude. Kautskianoek, aldiz, autodeterminazioa era hipokritan onartzen dute: gure herrialdean, Errusian, bide horri jarraitzen diote Trotski-k eta Martov-ek. Hitzez, biak daude autodeterminazioaren alde, Kautski bezala. Eta benetan? Trotski-k — har ezazue ‘Nazioa eta ekonomia’ artikulua, Nashe Slovo-n — bere ohiko eklektizismoa erakusten digu: batetik, ekonomiak nazioak batzen ditu; bestetik, zapalkuntza nazionalak banantzen ditu. Ondorioa? Ondorioa da nagusi den hipokresia mozorroa kendu gabe jarraitzen duela, asaldura bizigabea dela, ez diola heltzen printzipalari, kardinalari, funtsezkoari, praktikatik hurbil dagoenari, hots, “nire” nazioak zapalduetako nazioarekiko jarrerari. (...)”

Autodeterminazioari buruzko eztabaidaren balantzea (1916) – Lenin

Bestalde, Lenin-en aburuz nazio zapalduetako sozialistek nazioen batasunaren (antolakuntza-batasuna barne) alde egin behar zuten, burgesiak askapen nazionalaren inguruko kontsignak beharginei iruzur egiteko eta nazio menderatzaileko burgesiarekin edo potentzia inperialistekin hitzarmenak egiteko erabiltzen zituelako. Halere, internazionalista izateari utzi gabe, bere nazioaren independentzia politikoaren edo beste Estatu batera batzearen alde agertu zitezkeen, baina betiere langileriaren nazioarteko mugimenduaren interes orokorrak kontutan izanda, isolamendu eta berekoikeria nazionalaren aurka borrokatuz.

“Izan ere, ez dakigu eta ezin dugu jakin zenbat nazio zapaldu beharko duten praktikan banaketa demokraziaren formen eta sozialismora iragate-moduen aniztasunari beren oboloa emateko. Baina bai dakigu, ikusten dugu eta egunero hautematen dugu banatze-askatasunaren ukapena gaur egun faltsukeria teoriko amaigabea eta nazio zapaltzaileetako txobinistentzako zerbitzu praktikoa dela.”

Marxismoaren karikaturari eta “ekonomismo inperialistari” buruz (1916) – Lenin

Sozialismoan ere autodeterminazio-eskubidea guztiz beharrezkoa zen, Estatuaren mugak (komunismoaren fase gorenera iritsi arte mantenduko dena) era demokratikoan ezartzeko, biztanleriaren borondatea kontuan hartuz eta haren begikotasuna irabazteko xedeaz (eta ez soilik ekoizpenaren beharren arabera). Sozialismoak nazio-zapalkuntzarekin amaitzeko aukera ematen zuen, kapitalismoan ezinezkoa zena, baina honetarako beharrezkoa zen demokrazia osoa ezartzea, banaketarako eskubidea barne. Are gehiago inperialismoak muga gutxiago demokratikoak eta anexio gehiago (Europar eta munduan) utziko zituztenez oinordetzan. Gainera ezin zituzten beste herriei gerra egin sozialismoa inposatzeko (baina bai honen defentsarako).

Lenin-entzat azken helburua kapitalismoak aurrera eramandako kontzentrazio ekonomiko eta politikoa babestea zen, ez soilik nazioen gerturatzerako, baizik eta bat-egiterako ere, baina era askean eta ez hertsapenean oinarrituta.

Guzti honetan Lenin-ek ez zuen desberdintzen Europako nazio zapalduen eta kolonien artean. Are gutxiago Errusiako kasuan, non hauen arteko desberdintasuna ez zegoen argi. Hori bai, nazio garatu eta kultuagoetan banatze-aldia kolonietan baino motzagoa izango zela jotzen zuen, 'laguntza kultural eskuzabalaren' bitartez laburtzen saiatuko zirena.

Plantamanedu honen esperientzia praktikoa gisa errusiar iraultza bera aztertuko dugu: 1917ko otsaileko iraultzak tsarismoa uzkaile eta gero urrian boltxebikeek Errepublika sobietikoa aldarrikatu zuten. Honek autodeterminazio-eskubidea aitortu eta gero, hainbat nazioetan Errepublika burgesak aldarrikatu zituzten. Egoera honetan, nazio hauekako komunistek Errepublika sobietikoa aldarrikatu eta errusiar Errepublika federaleko Ejertzito Gorria haiei laguntzera sartzen zen bertako burgesiaren aurka. Hau Ejertzito Txuri kontrairaultzaileen eta hauek babesteko asmoz 14 Estatu burges eta inperialisten (AEB, Ingalaterra, Frantzia, Alemania...) esku-sartzearen aurkako guda zibil iraultzaileen erdian gertatu zen (Stalin-ek hau Errusia independente eta aske baten aldeko guda deitu zuen). Behin guda amaituta nazio garatuenak (Finlandia, Polonia...) mundu kapitalistaren barnean geratu ziren (Polonia gainera Ukraina, Bielorrusia eta Lituaniako zati batekin geratu zen).

1922an Errepublika nazional independente (Stalin berak ahala deituta) horien arteko federazioa eratu zen, Errepublika Sozialista Sobietikoen Batasuna (ESSB), Mosku hiriburu gisa. Stalin hau "ekonomikoki" ere justifikatzen saiatu zen: Errusiak ekoizpen-indarren azpigarapena bazuen, inguruko nazioek ("kanpoaldea" bere hitzetan) are gehiago, beraz batasuna beharrezkoa zen setio inperialistaren aurrean bizirauteko. Gainera, historikoki garatutako nazioen arteko "lanaren banaketak" batzuk besteen beharra izatea zekarren...

Georgiako agintari komunistek, ordea, ez zuten honetan sartu nahi (ez Transkaukasiako Federazioaren barnean behintzat, Armenia eta Azerbaijanekin batera), eta Errusiako Alderdi Komunista boltxebikeko ordezkari batzuek (Stalin, Ordzhonikidze eta Dzerzhinski) behartu zituzten. Honek Lenin-en haserrea piztu zuen, istilu honen inguruan hainbat kritika idatzi zituztenak bere "testamenduan" (Alderdiko biltzarrean irakurriko ziren oharrek):

"(...) Arazoaren alde honi muzin egiten dion georgiarra, "sozial-nazionalismo" salaketak erdeinuz jaurtitzen dituena (bera egiazko eta benetako "sozial-nazional" bat ez ezik, errusiar morroi zakar bat ere badenean), georgiar horrek, funtsean, klase-elkartasun proletarioaren interesak kaltetzen

ditu, ezerk ez baitu hainbeste atzeratzen elkartasun horren garapena eta sendotzea, bidegabekeria eremu nazionalen baino, eta ezertarako ez dira hain sentiberak nazionalitate bateko kide "irainduak" berdintasunaren sentimendurako bezala eta bere kide proletarioek berdintasun hori kaltetzeko, nahiz eta zabarkeriagatik egin, nahiz eta gauzak txantxa iruditu. Horregatik, kasu honetan, hobe da gutxiengo nazionaletikiko emakidei eta leuntasunari dagokienez gehiegikeria egitea, gutxiegi egitea baino. Horregatik, kasu honetan, elkartasun proletarioaren eta, ondorioz, klase-borroka proletarioaren bizi-interesak eskatzen du arazo nazionalari ez begiratzea inoiz formalki, baizik eta beti kontuan hartzea nazio zapalduaren (edo txikiaren) proletarioak nazio zapaltzailearekiko (edo handiarekiko) duen jarreran dagoen nahitaezko ezberdintasuna."

Nazionalitateen arazoaren inguruan edo "autonomizazioari" buruz (1922) – Lenin

Lenin-i gehien arduratzen zionak "gure nazionalitate ez errusiarrekiko" jarrera inperialistek Ekialdeko herrialdeetako kideen konfidantza kaltetzea zen, etorkizun hurbilean borrokara batuko zirenak. Honen ondorioz Stalin-ek bere kokapena zuzendu zuen eta txobinismo "errusiar handia" borrokatzeko beharraz mintzatzen hasi zen. Halere, Errepubliketako nazionalismoa eta txobinismoa ere aipatzen zituen, haien artekoa edota gutxiengo nazionalen aurkakoa.

Historiak sortutako desberdinkeria orekatzeko, aurretik ere aipatzen zuten zerbait izan arren, nazioen arteko benetako berdintasuna lortzea (ekonomikoki ere) eta haien kultura nazionalen suspertzea Estatu sobietikoaren politika gisa ezarri zen. Stalin-en hitzetan, kultura hauek nazionalak ziren forman eta sozialistak edukian.

"Hori dela eta, Alderdiak beharrezkotzat jo du gure herrialdeko nazio berpiztuei laguntzea zutik jartzen, beren garaiera osoan altxatzen, beren kultura nazionala suspertzen eta garatzen, amahizkuntzan eskolak, antzokiak eta beste kultura-erakunde batzuk sortzen, nazionalizatzen, hau da, nazional egiten, bere osaeragatik, Alderdiko aparatua, sindikatuena, kooperatibena, Estatuarena eta administrazio-arlokoa, bere koadro nazional propioak eratzen Alderdiarentzat eta Sobietentzat, eta motzean lotzen Alderdiaren politika horri oztopoak jartzen saiatzen diren ale guztiei -gutxi batzuk, hala ere-.

Horrek esan nahi du Alderdiak gure herrialdeko herrietako kultura nazionalen garapena eta loraldia babesten eta babestuko dituela; gure nazioen, nazio berrien, sozialisten indartzea sustatuko duela; lan hori zaintzeaz eta mota guztietako ale antileninisten aurka babesteaz arduratuko dela."

Nazio-auzia eta leninismoa (1929) – Stalin

Edonola ere, Lenin-ek Estatu bakarra defendatu zuen Mendebaldeko inperialisten setio ekonomiko-militarraren aurrean. Stalin-ek ere langileriak bere boterea indartzeko eskubidea autodeterminazio-eskubidearen gainetik zegoela zioen. Ukrainako komunistek konfederazioa proposatu zuten, baina ukatu zitzaizen. Honela Batasun Sobietikoa nahi zen unean uzteko aukera paperean gelditu zen, etorkizunean ondorio larriak izango zituena.

Aipatu beharra dago prozesu honetan beste Estatu sozialista bat sortu zela, Mongoliakoa hain zuzen ere. 1920an Errepublika txinatarrak herrialde feudal honen autonomia deuseztatu zuen. Errusiako Errepublika sobietikoak okupazio txinatarraren aurka laguntza bidali edo ez eztabaidatzen ari zenean, Ejertzito Txuri errusiarrak Mongolia inbaditu zuen. 1921ean Ejertzito Gorriaren laguntzaz hau garaitu ondoren Mongoliako Errepublika Herrikoa aldarrikatu zen, barne-Mongolia hartzen zuenak, baina 1945 arte ez zen nazioartean aintzatetsia izan. MEH ez zen ESSBrekin federatu eta burujabe mantendu zen.

NAZIO-ASKAPEN BORROKAK: KOLONIAK VS EUROPA?

1914. urteko uztailean I. Mundu Gerrate inter-inperialista hasi zen eta II. Internazionaleko Mendebaldeko alderdi nagusiek haien Estatu burgesak sostengatu zituzten. Traizio hau langile- aristokraziaren joera oportunistak, sozial-txobinista, gailentzearen ondorio izan zen, bakoitza “bere” burgesia inperialistaren alde kokatzea zekarrena. Gutxiengo batek ‘Zimmerwald-eko Biltzarra’ deitu zuen gerratea gaitzesteko eta hau ere bi joeratan banatu zen: eskuina eta ezkerria. Hau sozialdemokrata eta komunisten arteko banaketa izan zen izatez.

‘Zimmerwald-eko ezkerriaren’ baitan Luxemburg eta beste batzuek ‘ekonomismo (edo ekonomizismo) inperialista’ deitutako joera garatu zuten. Hauen arabera inperialismoan, kapitalismo monopolistan, autodeterminazio-eskubidea “eginezina” zen honen kontzentrazio ekonomiko eta politikoaren ondorioz, eta sozialismoan “soberan” zegoen. Lenin-ek aurre egin zien autodeterminazio-eskubidearen defentsan, baita beste gai batzuetan ere.

“Nazioen autodeterminazioa eta askapen nazional osoaren, independentzia osoaren, anexioen aurkako borroka gauza bera dira, eta sozialistek ezin diote borroka horri uko egin – bere forma edozein izanda ere, matxinada edo gerra barne – sozialista izateari utzi gabe.”

Marxismoaren karikaturari eta “ekonomismo inperialistari” buruz (1916) – Lenin

Inperialismoak erreakzio politikorako joera, eta ondorioz autodeterminazio-eskubidea urratzeko joera, anexioetarako joera zekarren. Baina hemendik ezin zen ondorioztatu garai honetan autodeterminazioa “ezinezkoa” zenik, aitzitik, honen aldeko borroka areagotu egiten zen, kasu batzuetan matxinada eta guda nazionala bihurtzeraino.

“Borroka nazionala, matxinada nazionala eta banaketa nazionala guztiz “gauzagarriak” dira, eta benetan ikusten dira inperialismoan; are gehiago, areagotu ere egiten dira, inperialismoak ez baitu geldiarazten kapitalismoaren garapena ezta joera demokratikoen hazkundera ere biztanleriaren masan, baizik eta joera demokratiko horien eta trust-en joera antidemokratikoaren arteko antagonismoa larriagotzen du.”

Marxismoaren karikaturari eta “ekonomismo inperialistari” buruz (1916) - Lenin

Luxemburg-ek zioen, Junius ezizenez idatzitako artikuluan, garai inperialistan jada ezin zela guda nazionalik egon, mundua jada potentzien artean banatuta egonda edozein gerra inperialista bilakatzen zelako. Lenin hau gerra honetan egia zela zioen, nahiz eta “aberriaren defentsaren” izenean egin, benetan koloniar banatzeko, besteen lurak arpilatzeke, mundua menperatzeko kapital finantzariaren gerra zelako, potentzia inperialisten arteko gerra zelako. Baina hau ezin zen kasu guztietara hedatu, garai honetan inperialismoaren aurkako mugimendu nazionalak ere bazirelako, eta ondorioz atzerriko uztarrak botatzeko askapen nazionalako gudak ere, nazio zapalduen gerrak Estatu zapaltzailearen aurka. Gainera bata bestean ere bihurtu zitezkeen (gerra napoleonikoetan gertatu bezala).

Gerra inperialista hori oso zaila zen nazional bihurtzea, baina ez ezinezkoa, iraultza sozialista urte luzez geroratu eta European hainbat Estatu nazional bideragarrien menperakuntzarekin amaituko balitz. Hau atzerapen historikoa izango litzateke Lenin-etzat.

Kolonietan, non mugimendu nazionalak indartzen ari ziren, guda nazionalak saihestezinak ziren. Izan zitekeen nazio-askapen gudak egotea non lehia inperialista bigarren mailako zerbait zen (gerrate honetan guztiz alderantziz zen). Herrialde koloniarren aliantza potentzia inperialisten aurka ere aurreikusten zuen, beti ez zena gerra inperialista bihurtuko.

Baina ez hori bakarrik, Europako nazio zapalduak ere mota honetako gerrak abiazarazi zezaketen, nahiz eta haren esanetan irabazteko aukera gutxi izan.

“Hirugarrenik, European ezta ere ezin dira gerra nazionalak ezinezkotzat jo garai inperialistan. “Inperialismoaren garaiak” egungo gerra inperialista bihurtu du eta gerra inperialista berriak sortuko ditu ezinbestean (sozialismoak garaitu arte). “Garai” honek zeharo inperialista bihurtu du egungo potentzia handien politika, baina ez ditu inolaz ere baztertzen gerra nazionalak, demagun, herrialde txikiak (anexionatuak edo nazionalki zapalduak) potentzia inperialisten aurka, Europako Ekialdean mugimendu nazionalak eskala handian baztertzen ez dituen era berean.”

Junius-en liburuxkari buruz (1916) – Lenin

Potentzia inperialisten aurkako guda nazionalak, ez ziren soilik posibleak eta gertagarriak, baizik eta saihestezinak, aurrerakoiak eta iraultzaileak ere. Baina, Lenin-en aburuz, arrakasta izateko beharrezkoa zen herri zapalduetako milioika biztanle batzea, nazioarteko faktoreen elkartzere bereziki onuragarria edo potentzia handietako langileriaren matxinada aldi berean. Azken hau zen aukera onena langileriaren boterea ezartzeko Lenin-en ustez.

Oportunistek “aberriaren defentsa” erabiltzen zuten gerrate inperialistaren izaera harrapari eta atzerakoia estaltzeko. Luxemburg-entzat herrialdearen defentsa onena klase-borroka zen, baina horretarako “germaniar errepublika handi batua” aldarrikatu zuen, eta ez Lenin-ek zioen moduan, sozialismoaren aldeko guda zibila, ikuspegi historikotik aurrerakoia zena. Lenin-ek Luxemburg-en kokapen hau “etapismo mentxebiketzat” jo zuen eta Europako herrialde handi aurreratuetan guda nazional-demokratikoak XIX. mendean jada amaitutzat eman zirela aurpegiratu zion. Ondorioz nazio-Estatu hauetan “aberriaren defentsa” aldarrikatzea atzerakoia zen, are gehiago hauetako batzuk beste hainbat herri zapaltzen zituzten nazio inperialistak bilakatu zirenean. Beraz aldarrikatu beharrekua burgesiaren aurkako nazioarteko beharginen iraultza zen, eta hau eta gero Estatu sozialistaren defentsarako gerra.

Ekonomizismo inperialistaren arabera aberriaren defentsa oro burgesia propioaren eskubidea defendatzea zen beste herriak zapaltzeko eta arpilatzeke. Lenin-entzat hau egia zen gerra inperialistaren kasuan, baina ez guztietan, guda nazionaletan bezala, non nazio zapaldua nazio zapaltzailearen aurka borrokatzen zen bere independentziaren alde. Bere ustez Estatu burges handien aurkako matxinada guztiak babestu behar ziren, hauek ahultzeko eta langileriaren boterearen erdiespena errazteko. Nazio zapaldu bateko burgesiak hitzez matxinada erabili eta egiatan, bere herriaren bizkarrean eta honen aurka, nazio zapaltzaileko burgesiarekin itunak egiten

zituen kasuetan, marxista iraultzaileek ez zuten kritika mugimendu nazionalari zuzendu behar, baizik eta honen zabartzeari.

Baina ekonomizista inperialistak, anexioen aurka zeudela esan arren, Europan “muga-zutoin berriak ipintzearen aurka” zeuden eta guda nazionalak gaitzesten zituzten, hauek “proletalgoa burgesiaren alde eta nazio zapaltzaileko proletalgoaren aurka jartzea” zekarrelako. Hau ageriko anexionismoa deitu zuen Lenin-ek. Berarentzat anexioen aurka borrokatzeko erarik onena autodeterminazio-eskubidearen alde borrokatzea zen.

Kolonietan, ordea, ekonomizistek independentzia aldarrikatzen zuten zuzenean: “kolonietatik kanpora!”. Lenin-en ustez, koloniak eta Europa kontrajartzea zentzugabekeria zen.

“Argi dago kontzentrazioa kolonien anexioaren bitartez ere egiten dela. Kolonien eta europar herrien – azken hauetako gehienak, behintzat – arteko desberdintasun ekonomikoa, lehen koloniak merkantzien trukera eramanak zirela zen, baina oraindik ez ekoizpen kapitalistara. Inperialismoak egoera hori aldatu du. Inperialismoa, besteak beste, kapital-esportazioa da. Ekoizpen kapitalista gero eta azkarrago lekualdatzen da kolonietara. Ezinezkoa da hauek europar kapital finantzarioarekiko mendekotasunetik ateratzea. Ikuspuntu militarretik, hedapenaren ikuspuntutik bezala, kolonien banaketa egingarria da, arau orokor gisa, sozialismoarekin bakarrik; kapitalismoarekin, banaketa hori salbuespen gisa da gauzagarria, edo kolonietan zein metropolietan iraultza eta matxinada multzo bat eginez.”

Autodeterminazioari buruzko eztabaidaren balantzea (1916) – Lenin

Europako nazio zapalduak koloniak baino garatuago zeuden, kultuagoak eta esparru politikoan zorrotzagoak ziren, eta honen ondorioz handiagoa zen zapalkuntza nazionalaren eta anexioen aurkako erresistentzia. Gainera ekoizpen-indarrak azkarrago hazteko eta kapitala lortzeko erraztasun gehiago zuten, kolonietan honetarako politikoki menperatu behar zirenean. Ondorioz Europan mota guztietako mugimendu iraultzaileak (nazionalak barne), posibleagoak, egingarriagoak, irmoagoak, kontzienteagoak eta zapaltzeko zailagoak ziren kolonietan baino.

Lenin inperialismoaren aurkako mugimendu nazional guztiak iraultza sozialistarako erabiltzearen alde zegoen, baina garrantzitsua zena ez zen zenbat nazio askatuko ziren iraultza sozialista baino lehen, ia beti ezinezkotzat zuena. Berarentzat nazio guztien interesak kontutan izan behar ziren, eta herri handienak txikienak baino lehenago. Beraz kasu partikular bat interes orokorren aurka joango balitz, baztertu beharko litzateke (beste edozein aldarrikapen bezala). Herri batzuk iraultza sozialista hasi eta beste batzuk aurka ipiniko balira, lehenak babesteko beharra ere adierazi zuen.

Lenin-entzat gerrate honek agerian ipini zuen nazio zapaldu txikien bizindarra inperialismoaren aurkako borrokan, bai kolonietan baita Europan ere (indiarrak, kamerundarrak, txekiarrak...).

Belgikako kasua ere aipatzen du: Germaniaren okupaziopean nazio kultu honek aldizkari klandestino bat argitaratzea lortu zuen, sozialdemokrazia germaniarrak ezer egin ez zuen bitartean.

“Ez al dago argi Europa koloniei kontrajartzea gutxien onartu daitekeen eremua arlo honetan dela? Europako nazio zapalduen borroka, matxinadetara eta kale-borroketara iristeko, tropen

diziplina zorrotza hausteko eta setio-egoera eragiteko gai dena, borroka honek “Europako krisi iraultzailea areagotuko du”, urrutiko kolonia batean matxinada askoz ere garatuago bat baino indar paregabeki handiagoz. Irlandako matxinadak Ingalaterrako burgesia inperialistaren botereari emandako kolpeak Asian edo Afrikan indar bereko beste kolpe batek baino ehun aldiz garrantzi politiko handiagoa du.”

Autodeterminazioari buruzko eztabaidaren balantzea (1916) – Lenin

Irlandako matxinada nazionalak (ekonomizista inperialistek “putx” deitu zutena), non hiriko burgesia ttipiaren eta beharginen zati batek hartu zuen parte, bere babes osoa izan zuen. Lenin-en esanetan honen porrotaren zergatia europar langileriaren matxinada oraindik heldua ez zegoenean abiarazi izana zen.

Bere aburuz nazio txikiak ezgai ziren inperialismoaren aurka eragile banandu gisa, baina honen aurkako benetako indarra borrokara batzea eragin zezaketen: langileria sozialista.

“Baina garai horrek berak sorrarazi eta elikatu behar du, ezinbestean, zapalkuntza nazionalaren aurka borrokatzeko eta proletalgoak burgesiaren aurka borrokatzeko politika, eta, horregatik beragatik, posibilitatea eta saihestezintasuna, lehenik eta behin, matxinada eta gerra nazional iraultzaileena; bigarrenik, proletalgoak burgesiaren aurka egindako gerra eta matxinadena; hirugarrenik, bi gerra iraultzaile moten bat-egitearena, eta abar.”

Iraultza proletarioaren programa militarra (1916) – Lenin

Edonola ere, Lenin-ek ez zuen nazio-askapen borrokaren eta iraultza sozialistaren arteko loturarik ezartzen, ez zituen prozesu iraultzaile beraren fase gisa ikusten, berarentzat bat-egite hau nazio zapalduaren eta potentzia inperialistako langileriaren matxinada aldi berean ematean zetzan soilik.

Stalin-entzat, bestalde, inperialismoan (eta batez ere Urriko iraultza eta gero) nazio-auzia iraultza proletarioaren parte izatera igaro zen. Mugimendu nazionalak nekazalgora zuten oinarri eta ondorioz izaera sakonki herrikoi eta iraultzailea. Beraz nazio-askapen borrokak burgesien arteko borrokak izateari utzi eta nazio menderatzaileko burgesia inperialistaren aurkako masa herrikoiaren borrokak izatera igaro ziren, haien esplotazio ekonomiko, zapalkuntza politiko eta despertsionalizazio kulturalaren aurka. Horregatik mugimendu nazionalak iraultza proletarioaren aliatu bilakatu ziren. Hala ere, oraindik ez zuen langileriak hauek zuzentzea proposatzen.

Esperientzia praktikoa gisa aipatutako Irlandako kasua aztertuko dugu: XIX. mendearen amaieran Irlanda jada industrializatuta zegoen eta langileria hazten zihoan. 1896. urtean Alderdi Sozialista Errepublikano Irlandarra sortu zen eta 1900ean II. Internazionalak Irlandako ordezkari banandu gisa onartu zuen Erresuma Batuen parte izan arren. Bere heburua Irlandaren independentzia eta sozialismoa erdiestea zen. 1913an Armada Hiritar Irlandarra erakunde armatua sortu zuten, ITGWU sindikatuaren adar gisa, grebetan langileriak bere burua defendatzeko. Honetan gizonak zein emakumeek hartu zezaketen parte.

1916an, I. Mundu Gerrate inter-inperialistaren erdian, Armada Hiritar Irlandarrak, beste indar nazionalista batzuekin batera, Errepublika irlandarra aldarrikatu zuen ‘Pazko Matxinadan’ hartu

zuen parte. Hau aldez aurretik zegoen porrotera kondenatuta ez zitzaizkielako behar zituzten arma guztiak iritsi, baina kide guztiei abisatu ezin zitzaenez, nahiago izan zuten aurrera jarraitu. Ondorioz Ejertzito britaniarrak altxamendua zanpatu eta haren buruzagiak, James Connolly barne, fusilatu zituen.

James Connolly politikari iraultzailea askapen nazionala eta iraultza sozialista uztartzen aitzindaria izan zen. Connolly-rentzat nazioaren interesak defendatzea (edo nazionalismoa) honen gehiengoaren interesak defendatzea zen, behargin eta nekazarienak alegia, eta ondorioz sozialismoaren alde borrokatu beharra zegoen. Horregatik klase jabetunekin aliantza gaitzesten zuen horrek aldarrikapen sozialak baztertzea eskatzen bazuen. Internazionalismo proletarioaren alde zegoen, eta hau defendatzeko erarik onena norberaren herrialdean iraultza sozialista egitea zela zioen. Irlandako hizkuntza gaelikoaren alde egin zuen baita ere.

“Bihar Ejertzito ingelesa kanporatu eta Dublineko Gazteluaren gainean bandera berdea altxatzen baduzue, Errepublika sozialista bat eraiki ezean zuen ahalegin guztiak alferrik izango dira. Ingalaterrak zuek menperatzen jarraituko du.”

Sozialismoa eta nazionalismoa (1897) – James Connolly

1919an, nazionalistek hauteskundeak irabazi eta gero, Armada Errepublikano Irlandarrak independentziaren aldeko gerra abiarazi zuen. 1921an Gobernu ingelesak itun bat aurkeztu zuen, Estatu irlandarra aintzatesten zuenak baina inperio britainiarraren parte gisa. Gainera iparraldeko 6 konderri, industrializatuenak, Erresuma Batuaren barruan geratuko ziren. Orduan guda zibila hasi zen itunaren aldekoen eta aurkakoen artean. 1924an aldekoek, britainiarren laguntza zutenak, gerra irabazi zuten. Honela James Connolly-ren amesgaiztoa egi bihurtu zen: Irlanda zatitu bat.

LANGILERIAREN ALDERDIAREN ANTOLAKUNTZA-EREMUA

Lenin-en iritziz naziotasun guztietako beharginak “nazioarteko” antolakunde bakarretan baldintzarik gabe batu eta guztiz bat-egin behar zuten, nazio horiek Estatu beraren mugen barnean zeuden bitartean behintzat. Planteamendu hau nazio zapalduetan soilik ez baizik eta kolonietan ere ezarri behar zen. Antolakuntza hau ahultzea sozialismoari traizio egitea eta “nazionalismo burgesean erortzea” esan nahi omen zuen. Halere bakoitzak bere hizkuntza nazionala erabiltzeko eskubidea onartzen zuen.

Stalin-ek Alderdi bakarraren beharra defendatu zuen Bund-ak autonomia nazional-kulturalaren ildotik defendatzen zuen “federalismoaren” aurrean, lurralde bereko langileak haien nazionalitatearen arabera antolatzea babesten zuenak. Honek sindikatuak ere banatzea eta lantegi berdinean beharginak haien artean isolatzea edo greba-hausleri kasuak ematea zekarren. Stalin-ek honi eskualde-mailako autonomia zabala kontrajartzen zion, lurralde bereko beharginak printzipio internazionalisten arabera antolatuko zituenak. Hau zen EBASDak bere II. Biltzarrean onartu zuen antolakuntza-forma, beraz boltxebikeen kokapen ofiziala zen.

1919. urtean Errusiako Errepublika sobietikoan III. Internazionala edo Nazioarteko Komunista (Komintern) sortu zen nazioarteko langileria batzeko munduko Errepublika sobietikoaren aldeko borrokan. Komintern-aren zuzendaritza Alderdi Komunista bakoitzaren “garrantziaren” arabera ezartzen zen eta ondorioz Alderdi boltxebikeak erabateko nagusitasuna zuen, nahiz eta beste alderdietako kideak ere izan. Honela Alderdi honetako buruzagi ezberdinak igaro ziren honetatik, bere jardueran eragina izan zuenak.

Komintern-ak herrialde (Estatu) bakoitzean zuen Alderdia honen atala izendatzen zen eta bakarra izan behar zuen. Nazio-mailako antolakuntza baztertzen zen printzipio internazionalisten aurkakoa omen zelako. Are gehiago, baldintza parekoak zituzten Estatu desberdinen arteko Alderdi federatuak sortzeaz ere mintzatzen zen. Kolonietan ere potentzia inperialistako ordezkariak ziren Alderdiak sortzeko arduradunak, nahiz eta nazio zapalduaren izena eraman zezaketen (Estatuko alderdiaren parte izanik). Independentzia formala lortzen zuten herrialde erdi-koloniarretan bai sortzen zituzten atal propioak.

Hala eta guztiz ere, salbuespenak egon ziren:

- Alderdi Herrikoi Mongoliarra: 1920an sortu zen, Errepublika txinatarrak Mongoliako autonomia deuseztatu eta gero. 1921ean Ejertzito Gorriaren laguntzaz Alderdiak independentzia lortu eta monarkia deuseztu zuen iraultza eraman zuen aurrera. 1924an Komintern-ak bere atal gisa onartu zuenean bere izena Alderdi Iraultzaile Herrikoi Mongoliarrera aldatu zuen, bai ESSB bai Errepublika txinatarra Mongolia Txinaren parte gisa aintzatesten bazuten ere.
- Irlandako Alderdi Komunista: 1921. urtean Komintern-ak Irlanda osorako bere atal gisa onartu zuen. Bere helburua independentziaren aldeko guda zibilean ingelesek eskainitako itunaren aurkako IRAn nukleo bat sortzea izan zen behargin-errepublika lortzeko. Sobieten

sorkuntza ere bultzatu zuen. 1924an, lortutako babes sozial eskasa zela eta, Komintern-ak desegin eta berriki sortutako Behargin-Liga Irlandarra onartu zuen bere atal gisa.

- Egiptoko Alderdi Komunista: 1921ean Egiptoko Alderdi Sozialista sortu zenean Egipto inperio britainiarraren kolonia zen. Urte amaieran Komintern-ak bere atal gisa onartu eta izenez aldatu zuen. 1922an Egiptok independentzia formala lortu zuen monarkia forman nahiz eta britainiarren okupazio militarren menpe jarraitu.
- Alderdi Komunista Aljeriarra: 1920. urtean sortu zen Alderdi Komunista Frantziarraren kolonietako sail gisa. Nazio-askapen mugimenduaren aurka zegoen eta horregatik bere kide gehienak kolono frantziarrak ziren. 1935ean Komintern-ak, Aljeria Estatu frantziarraren parte izaten jarraitu arren, Alderdi independente gisa onartu zuen.
- Koreako Alderdi Komunista: 1925. urtean sortu zen klandestinitatean, Japoniaren okupaziopean. 1928ean Komintern-ak bere atal gisa onartu zuen, nahiz eta urte berean desegin bere barne-gatazken ondorioz.
- Txinako Alderdi Komunista: 1921ean sortu zen Errepublika txinatar erdi-koloniarrean Komintern-aren ekimenez. 1931ean inperialismo militarista japoniarrak Txina inbaditu eta menpeko Estatu bat sortu zuen Mantxurian, nazioartean aintzatetsia izan zena. Kasu honetan, ordea, ez zen Alderdi berririk eratu eta 1945ean ESSBko Ejertzitoak japoniarrak garaitu ostean Mantxuria Errepublika txinatarraren parte izatera igaro zen, nora Txinako Alderdi Komunistako zuzendaritza lekualdatu zen handik iraultza abiarazteko.
- Kataluinako Alderdi Sozialista Bateratua: 1936. urtean sortu zen, kolpe faxista espainiarra hasi eta gutxira, 4 alderdi bateratuz. Urte berean onartu zuen Komintern-ak bere atal gisa, Kataluina nazionalki zapaltzen zuen Estatuan jada bere atala zen Espainiako Alderdi Komunista existitu arren.

“Behargin-klase kataluniarraren alderdi politiko bakarra garatuko litzateke eta gerran zehar eta ondoren bere eginkizun historikoa betetzeko moduan egongo litzateke, benetan alderdi nazional bat izango litzatekeen neurrian, Kataluniako seme-alabek batez ere zuzendutakoa; Kataluniaren sentimendu eta interes nazionalen interpretatzaile leiala izaten eta arazo nazionalen txikia eta negatiboa dena garaitzen jakingo lukeen neurrian, internazionalismo proletarioaren bandera oso garai, zabal-zabal jasoz; Kataluinan beste ezein herrialdeetan bezala behargin-klasea nazioaren bizkarrezurra dela ulertu eta ulertaraziko lukeen neurrian.”

Jose Diaz eta arazo nazionala (1942) – Joan Comorera

Hemen Euskadiko Partidu Komunistaren sorrera ere aipatu beharra dago, Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoak barnebiltzen zituenak. 1935an sortu zen Espainiako Alderdi Komunistaren baitako ‘Federazio baskonabarroan’ oinarrituz, baina Alderdi honen parte izaten jarraitu zuen. EPKak autodeterminazio-eskubidea defendatzeaz gain, askapen nazional eta sozialaz eta okupazio-indar inperialistak botatzeaz mintzo zen.

- Yugoslaviako Alderdi Komunista: Yugoslaviako Lanaren Alderdi Sozialista (Komunista) bezala sortu zen 1919. urtean Serbiarren, Kroaziarren eta Eslobeniarren Erreinuan eta urte berean Komintern-ak bere atal gisa onartu zuen, bere izena aldatuz. Hurrengo urtean ilegalizatua izan eta ia desagertu zen. Alderdi honetako ordezkariak eztabaidak izan zituzten Stalin-ekin, ez baitzuten Alderdiaren programan nazioen autodeterminazio-eskubidea aitortu nahi. 1941ean inperialismo nazi-faxistak Yugoslaviako Erreinua inbaditu eta Alemania, Italia, Hungaria, Errumania eta Bulgaria artean banatu zuen. Kroaziako eta Montenegroko menpeko Estatuak ere sortu zituzten. Honen ondorioz, nazio ezberdinetako komunistak okupatu zituzten Estatuaren Alderdiekin antolatzen hasi ziren. Baina YAKak Komintern-ari hau gelditu eta lehenagoko mugen arabera berrantolatzeke eskatu zion, Estatu yugoslaviarra jada existitzen ez zen arren.
- Albaniako Alderdi Komunista: 1941. urtean, hamarkada bateko saiakeren ostean, hainbat talde komunistek Albania italiar faxismoaren okupaziopean zegoenean sortu zuten (nahiz eta baziren Alderdi hau italiar Estatu-mailan antolatu behar zela ziotenak). Bilera horretan YAKako bi kide egon ziren: bata albaniar komunistek kontzentrazio-esparru batetik askatutakoa eta bestea haiek YAKaren ordezkari gisa bidaltzea eskatu zutena (aurrerago YAKako zuzendaritzak hau erabili zuen AAK beraiek sortu zutela esateko). Hurrengo urtean Komintern-ak bere atal gisa onartu zuen, YAKaren bitartez bere sorrera jakinarazi eta gero. Italiar okupazioak Albania bere menpe “bateratu” bazuen ere, AAKak Kosovan ez antolatzea onartu zuen YAKak hala eskatuta, askapena eta gero nazio-auzia autodeterminazio-eskubidea errespetatuz konponduko zenaren ustean (gertatu ez zena).

“Gure herriaren patuetarako hain larriak ziren baldintzetan, non bere askatasuna galtzeaz gain, bere horretan desagertzeko arriskuan zegoen, albaniar ororen premia armak hartu eta gerra sakratu, antifaxista, askapen nazionalaren aldeko gerrari ekitea zen. Hain zuzen ere une erabakigarri hauetan, egoera iraultzaile batean, gerra askatzailearen sutan, jaio zen Albaniako Alderdi Komunista, behargin-klasearen alderdia, bere programatik masa herrikoi zabalen irrika eta gurei, gure herrialdea aurkitzen zen baldintza objektibo zehatzei erantzuten zien alderdia. Albaniar komunistek Albaniako Alderdi Komunista sortu zuten alderdi marxista-leninista iraultzaile gisa, mota berriko alderdi gisa, gidatzen zuen teoriatik, eraikita zegoen antolakuntza-printzipioengatik eta bere programa politikoagatik. Askapenaren nazional eta sozialaren aldeko borroka iraultzailea zuzentzeko behar objektibo gisa jaio zen.”

Fronte Demokratikoaren eginkizunari eta zereginei buruz (1967) – Enver Hoxha

- Behargin-Alderdi Poloniarra: 1938. urtean Komintern-ak Poloniako Alderdi Komunista desegin zuen bere zuzendaritzaren desbideratzeen ondorioz eta 1942an Behargin-Alderdi Poloniarra sortu zuen bere atal gisa. Alderdi hau nazio poloniarren mugen arabera antolatu zen, sortzerakoan Alemania naziak herrialdea okupatzen bazuen ere.

“Askapen nazionaleko borrokaren abangoardian zuen kokapena berreskuratuz, Behargin-Alderdi Poloniarrek herrialdearen askapenaren aldeko borroka herri langilearen boterea erdiestearen aldeko borrokarekin lotu zuen, betiere behargin-klaseak zuzendutakoa.”

Desbideratze eskuindar eta nazionalisten erabateko ezabaketa lortzeko (1948) – Boleslaw Bierut

- Alderdi Komunista Indotxinatarra: 1930. urtean Komintern-ak Alderdi Komunista Frantziarreko ordezkari bat bidali zuen kolonietan alderdia sortzeko. Kide hau, Parisen lan egiten zuen arren, vietnamdarra zen. Alderdia Hong Kongen sortu zen beste alderdi batzuen batuketaz. Hasiera batean Alderdi Komunista Vietnamdarra deitu bazuten ere, Komintern-ak izena aldatzea exigitu zuen eremu kolonial osoa hartzeko (Laos, Kanbodia) eta bere atal gisa onartu zuen.

“Lehenik, Vietnameko iraultza ez dago isolatua, baizik eta munduko proletalgoaren laguntza du oro har, eta bereziki behargin-klase frantziarrarena. Bigarrenik, inperialista frantziarrak ekintza terroristak bortizki egiten ari diren garai berean preseski komunista vietnamdarrak, lehen bananduta lan egiten zutenak, alderdi bakar batean bildu dira, Alderdi Komunista Indotxinatarrean, gure herri osoaren borroka iraultzailea gidatzeko.”

Hitzaldia Alderdi Komunista Indotxinatarren sorkuntzaren harira (1930) – Ho Txi Minh

IRAULTZA SOBIETIKOA ETA AUZI KOLONIALA

Errusiako Urriko iraultza sozialista eta gero, auzi kolonialak garrantzia hartu zuen Lenin-en begietara. Berak idatzi zituen ‘Arazo nazional eta kolonialari buruzko tesiak’ 1920ko Komintern-aren II. Biltzarrean aurkezteko. Gainera komunista britainiar batek ‘tesi gehigarri’ batzuk ere aurkeztu zituen, nahiko kutsu ekonomizista eta eurozentrikoa zutenak. Zegokion Batzordeak tesi hauek eztabaidatu eta moldaketa batzuk egin ostean, aurkeztu eta onartu ziren. Tesi hauek aurkezteko unean, Lenin-ek hainbat ohar egin zituen emandako eztabaiden harira:

Lenin-ek esan zuen herrialde atzeratueta mugimendu demokratiko-burgesari ‘mugimendu nazional iraultzaile’ deitu behar zitzaiola. Hau burgesa zen berez, herrialde hauetan mugimendu nekazariak zuen garrantziagatik, baina honela ez ziren desberdinduko mugimendu erreformistak, kolonietako burgesiaren eta burgesia inperialistaren arteko gerturatzearen ondorioz sortutakoak, eta zinez iraultzaileak zirenak, hots, inperialismoaren aurka egin eta komunisten lana baimentzen zutenak.

Lenin-ek aipatutako beste puntu garrantzitsu bat kolonietan fase kapitalistaren nahitaezkotasunari buruzkoa zen. Haren arabera, nazio aurreratuetako langileria iraultzaile garaileak bere Gobernu sobietikoen bitartez laguntzen bazituen, herrialde atzeratuak erregimen sobietikora igaro zitezkeen, eta hainbat etapan bitartez komunismora, garapenaren fase kapitalistatik igaro gabe.

“Kolonია guztietan eta herrialde atzeratu guztietan, ez ditugu soilik borrokalarien koadro propioak eta alderdi-antolakunde propioak eratu behar, ez dugu soilik berehalako propaganda egin behar nekazarien Sobietak sortzearen alde, baldintza aurre-kapitalistetara egokitzen saiatuz, horrez gain Nazioarteko Komunistak hurrengo tesia aldarrikatu beharko du, oinarri teoriko bat emanez: nazio aurreratuetako proletalgoaren laguntzaz herrialde atzeratuak erregimen sobietikora igaro daitezkeela, eta garapen-etapa jakin batzuen bitartez, komunismora, bere moldaeran fase kapitalista saihestuz.”

Arazo Nazional eta Kolonialetarako Batzordearen txostena (1920) – Lenin

Tesietan bertan, Lenin-ek demokrazia burgesak eta II. Internazionalak defendatzen zuten nazioen berdintasun formala kritikatu eta nazio zapaltzaile eta nazio zapalduen artean desberdintzeko beharra azpimarratu zuen. Nazio inperialistak herrialde aberats, aurreratu eta militarri indartsu gutxi batzuk ziren, menpeko nazio zein herrialde koloniarretan munduko biztanleriaren gehiengo bizi zen bitartean. Nazio bakoitzak egoera historiko eta batez ere ekonomiko bat zuen, eta nazioaren interesak orokorrak klase menderatzailearen interesak ziren. Horregatik klase zapalduen interesak hauetaz desberdindu behar ziren. Bere esanez gerra inperialistaren ondorioek agerian ipini zuten kapitalismoaren baitan ezin zela bake eta berdintasun nazionalik egon, beraz zapalkuntza nazionala eta eskubideen desberdinkeriarekin amaitzeko langile guztiak batu behar ziren kapitalista eta lurjabeen aurka.

Lenin-en arabera munduko egoera politikoak askapen nazional eta kolonialetako mugimenduak Errusia sobietikoarekin batzea inperialismoaren aurka eskatzen zuen. Honetarako herrialde

bakoitzeko mugimendu komunistaren garapen-mailaz gain herrialde atzeratuetao behargin eta nekazarien askapen-mugimendu demokratiko-burgesaren egoera kontuan hartu behar zen.

Lenin federazioaren alde agertu zen lehen aldiz, nazio guztietako langileen batasun osoaren norabidean iragate-forma gisa bazen ere. Horregatik errepublika sobietikoen federazioak bultzatu behar ziren: potentzia inperialisten setio militarren aurka, inperialismoak suntsitutako ekoizpen-indarrak berrosatu eta langileen ongizatea ziurtatzeko, eta mundu-mailako ekonomia sozialista bat sortzeko kapitalismoarena ordezkatzu.

Ekoizpen-harreman feudalak nagusi ziren Estatu edo nazio oso atzeratueta, komunistek, eta lehenik eta behin nazio zapaltzailekoek, askapen-mugimendu demokratiko-burgesa lagundu behar zuten. Hauetan nekazal-mugimendua ere lurjabeen aurka babestu behar zen eta izaera iraultzaileena eman, Mendebaldeko langileria komunistarekin lotuz. Inperialismoaren aurkako mugimendu iraultzaileak (komunistak ez zirenak) babestu behar ziren etorkizuneko alderdi komunistak biltzeko helburuarekin. Beraz lan hau baimentzen zuen demokrazia burgesarekin egin zitekeen aliantza bakarrik, baina burujabetasuna mantenduz eta etorkizuneko borroketarako prestatuz. Herrialde aurre-kapitalista hauetan ere, non ia langileriarik ez zegoen, erregimen sobietikoa ezartzen saiatu behar zen, gehienbat nekazarienak izango baziren ere. Potentzia inperialistek menpeko Estatuak sortzen zituztela ere salatu behar zen, eta nazio ahulentzako aukera bakarra Errepublika Sobietikoen Federaziora batzea zela zioen.

Beraz tesi hauetan Lenin-ek ez zuen loturirik ezartzen kolonietako nazio-askapenaren eta iraultza sobietikoaren artean, ez zituen prozesu beraren fase gisa ikusten. Are gehiago, burgesia nazionalak independentzia lortzeko kasuetan ere, nekazari-sobietek bultzatu beharrekoa herrialde aurreratuetao Errepublika sobietikoekin federatzea izan behar zen, eta ez haien kabuz proletalgoaren diktadurara iristea.

Stalin-ek ospatu egin zuen Lenin-ek mugimendu nazionalari koloniak gehitzea, herri asiarrak eta afrikarrak gehitzea, nazio-auzia Estaturen barne-arazo izatetik nazioarteko, mundu-mailako auzi izatera igaroz. Berak Mendebaldeko langileriak kolonien askapen mugimenduarekin aliantza behar zuela azpimarratzen zuen gehiago alderantziz baino, fronte anti-inperialista deitzen zuena. Horregatik nazio inperialistetako langileriak nazio-askapen mugimenduak babestu behar zituen, hauek zinez iraultzaileak baziren. Izaera hau erlatiboa zen, eta beti iraultza proletarioaren interesen ikuspuntutik ebatzi behar zen. Honen helburua koloniak inperialismoaren erreserba izatetik proletalgoaren diktaduraren erreserba izatera igarotzea zen. Stalin-ek kolonientzako banatze-eskubidea eta Estatu independenteak sortzeko eman beharreko babesa nabarmentzen zituen, azken helburua herri guztien bateratzea bazen ere.

Komintern-aren ildoak kolonien inguruan, oro har, hurrengoa izan zen: kolonien askapena soilik zen posible Mendebaldeko langileria iraultzarekin batera. Horretarako Alderdi Komunistak kolonietara hedatu behar ziren eta mugimendu nazionala babestu atzerriko inperialismoaren aurka, herri hauen garapen industrialak oztokatzen zuenak biztanleriaren gehiengoa nekazaritzan eta esportaziorako lehengaien ekoizpenean lan egitera behartuz. Honen baitan behargin eta nekazarien mugimendua sustatu eta, mugimenduaren masa-izaerak burgesia nazionalista zuzendaritzaatik

bazterterakoan, mugimendu nazionalaren buruan ipini behar ziren. Baina helburu nagusia ez zen independentzia lortzea, baizik eta potentzia inperialistetako langileriak bere alde erabiltzea kapitalismoaren aurkako matxinadaren unean (tropa koloniarren erabilera ekidinez adibidez). Independentzia lortzekotan, herrialdea Errusia sobietikorantz bideratu behar zen, honi esker industrializatu eta komunismoaren bidean sar zedin.

Aurrerago, VI. Biltzarrean zehazki, hainbat gauza gehiago zehaztu ziren, hala nola: kolonietan sobietek ezarri beharrekoa behargin eta nekazarien diktadura demokratikoa zela, eta proletalgoaren diktaduraren ezarpena hainbat etapetatik igaro behar zela; atzerriko inperialismoaren aurkako borrokan burgesia nazionalarekin aldi baterako itunak egin ahal baziren ere, honen traizioak langileriari independentzia eta askapen nazional osoaren aldeko borrokan hegemonia irabazteko aurkera ematen ziola; edota bai kanpoan bai barnean hainbat herri zapaltzen zituzten Estatu inperialisten aurkako matxinada edo guda nazionalerik babesa nazio zapaldu guztientzat nahitaezkoa zela. Halere, askapen nazionalaren eta iraultza sozialistaren arteko iragateari buruz ez zuen ezer teorizatu.

Esperientzia praktikoa gisa lehenik eta behin Vietnameko prozesu iraultzailea aztertuko dugu: 1930. urtean Ho Txi Minh-ek Alderdi Komunista Indotxinatarra sortu zuen (Komintern-ak izena aldarazi eta gero). Alderdia herri langilea kolonialista frantziarren, jaun feudalen eta haiekin aliatuako burgesia atzerakoiaren aurka antolatzeaz eta nekazarien autodefentsarako erakunde armatuak sortzeaz arduratu zen. Nekazari-sobiet batzuk ere sortu zituzten, autoritate inperialistek segituan desegin zituztenak. Garai honetan, “Indotxinaren independentziaz” mintzatzen bazen ere, Alderdiak ez zuen nazio-askapen mugimendua gidatzea lehentasun gisa.

Baina II. Mundu Gerratea hasi eta Frantziak Germania naziaren aurrean amore eman ondoren, japoniar faxismoaren okupazio militarra gehitu zitzaion botere koloniar frantziarraren zapalkuntzari. Orduan Alderdiak ‘Vietnamen independentziarako Liga’ sortu zuen 1941ean askapen nazionalaren aldeko indar guztiak batzeko, Ho Txi Minh buru zuelarik. Era honetan hasi zen atzerriko inperialismoaren aurkako gerrillen guda, Giap jeneralaren ardurapean. 1945eko abuztuan, inperialismo militarista japoniarrak guda galdu ostean, matxinada armatua abiarazi eta Ho Txi Minh-ek Vietnameko Errepublika Demokratikoa aldarrikatu zuen, behargin eta nekazarien diktadura demokratikoaren ezarpen gisa.

Estatu inperialistek, ordea, ez zuten aintzatetsi eta kolonialista frantziarrak haien agintea berriro ezartzen saiatu ziren. Vietnameko indar armatu herrikoiek ezin zieten militarri aurre egin eta gerrillen gudara bueltatu ziren. 1949an Txinako Errepublika Herrikoien ezarpenak Kuomintang-ak suposatzen zuen inbasioaren arriskua gutxitu zuen eta Vietnameko Errepublika nazioartean aintzatesten lagundu zuen. 1951ean komunista vietnamdarrek Alderdiaren izena aldatu zuten: ‘Vietnameko Langileen Alderdia’ (Laos eta Kanbodiarentzat beste bi Alderdi sortu zituzten). Frantziarrek haien zapalkuntza ezartzeko zituzten zailtasunak zirela eta inperialismo iparamerikarrari laguntza eskatzen hasi ziren. Borroka honetan Vietnameko ejertzito herrikoia Laos eta Kanbodian ere borrokatu zen hango herriekin batera inperialismoaren aurka. 1954an, Dien Bien Phun garaituak izan eta gero, Estatu frantziarrak alde egin eta Vietnameko Errepublika

Demokratikoak hauteskundeak egitea onartu zuen. Baina Ho Txi Minh-ek aise irabaziko zuela ikusirik, AEBk Estatu-kolpe bat eman zuen herrialdearen hegoaldean eta menpeko Estatu bat ezarri.

Hegoaldeko Estatuan Alderdiak 'Nazio-Askapenerako Frontea' eratu zuen borroka zuzentzeko. Haien txontxongilo atzerakoiek Vietnameko ejertzito erregularraren eta barneko gerrillen aurka zer egiterik ez zutela ikusita, iparamerikarrek haien armada osoa bidali zuten Vietnam okupatzera, ordura arte ikusi gabeko armak erabiliz eta sarraskiak eraginez. 1969an 'osaba Ho' zendu zen. Inperialista iparamerikarren porrotak 1976an herrialdearen birbateratzea eta Vietnam Errepublika Sozialista gisa eratzea ekarri zuen, proletalgoren diktadurara igaroz. Alderdiak 'Vietnameko Alderdi Komunista' izendapena hartu zuen. ESSBren laguntza militarra izan bazuten ere, komunista vietnamdarrek ez zuten utzi atzerriko troparik egotea eta burujabe mantendu ziren. 1979an Txinaren eta bere "khmer gorrien" erasoak pairatu eta garaitu zituzten. Vietnameko esperientziak erakutsi zuen nazio zapaldu txiki batek, koloniarra eta erdi-feudala izanda ere, arma eta baliabide tekniko askoz aurreratuagoak zituzten potentzia inperialistak garaitzea posible zela.

Beste kasu batzuk ere aztertuko ditugu hemen, Korea adibidez: XX. mendearen hasieran Japoniak okupatu eta, bere ekonomia nagusiki nekazaria zela eta, bere kolonia bihurtu zuen. Korean Alderdi Komunista egonkor bat sortzeko saiakerak porrot egin zuten eta ondorioz komunistak Txinara joan edo inperialista japoniarren aurkako borroka gerrillarian sartu ziren mugimendu nazionalistaren baitan. Hauetako bat Kim Il-Sung zen, azkenean ESSBko Ejertzito Gorrian amaitu zuena. 1945ean Ejertzito Gorriak faxismo militarista japoniarrak Asian zituen tropak garaitu zituen eta Koreako iparraldean ezarri zen. Honela ezarri zen Koreako Errepublika Herrikoia. Baina AEBko Gobernuak bi okupazio-eremu ezartzea exigitu zuen, haientzat hegoaldea eskatuz.

1946an beste alderdi batzuen batuketaz bi Koreako Langileen Alderdia sortu ziren, bata iparralderako eta bestea hegoalderako. 1947an Alderdiak masa-borroka eta gerrillen guda abiarazi zuen, era basatian zapaldua izan zena. 1948an AEBk menpeko Estatu bat sortu zuen hegoaldean eta orduan ESSBk Koreako Errepublika Herrikoia Demokratikoa aintzatetsi zuen iparraldean. Bi Estatuak Korea guztia aldarrikatzen zuten, eta orduan herrialdea bateratzeko guda hasi zen. 1949an bi Koreako Langileen Alderdiak bat-egin zuten, Kim Il Sung buru. Komunista korearrak herrialde osoa askatzeko gertu egon ziren, baina inperialista iparamerikarrek, Nazio Batuen Erakundearen izenean, haien tropak bidali zituzten hau ekiditeko. Txina eta batez ere ESSB haien ejertzitoekin sartu ziren komunista korearrak laguntzera, baina azkenean, 1953an, Korea banatuta geratu zen.

Aztertu beharreko hurrengo kasua Txina da: XX. mendearen hasieran Txinak independentzia formala lortu zuen baina bere egoera erdi-koloniala zen, atzerriko inperialisten tropen presentziarekin eta jaun feudalen ejertzitoen arteko gerrez josia. Horregatik Komintern-ak Txinako Alderdi Komunistari ESSBren aliatu zen Alderdi Nazionalistan (Kuomintang) sartzeko agindu zion 1923an. Baina 1927an, TxAKak irabazten ari zen eragina ikusita, Txiang Kai shek jeneralak komunisten aurkako sarraskiak abiarazi zituen. Kuomintang-aren ezkerak TxAKaren lana baimentzen jarraitzen bazuen ere, honek ez zuen asko iraun. Honela hasi zen TxAK eta Kuomintang-aren arteko guda zibila.

1937. urtean faxismo militarista japoniarrak Txina okupatzeari ekin zion, sarraski ankerrak aurrera eramanez. Honek egoera politikoa aldatu zuen, eta Komintern-ak berriro eskaini zion Kuomintagari aliantza, TxAK politikoki baimendu eta Gobernu nazionala osatzeko baldintzapean. Mao Zedong-en agintepeko Ejertzito Gorri txinatarrak, ordea, ez zuen okupatzaile japoniarren aurkako borroka esanguratsurik aurrera eraman, Yanan inguruan gotortuz.

1945. urtean ESSBko Ejertzito Gorriak Mantxuria inperialismo japoniarraren okupazioatik askatu zuen eta TxAKako zuzendaritza han ezarri zen. 1946an Askapenerako Ejertzito Herrikoa sortu eta inperialismo iparamerikarraren aldeko Txiang Kai shek-en aurkako guda zibil iraultzailea berrabiarazi zuten, 1949an amaitu zena komunista txinatarren garaipenarekin. 1950ean lamaista atzerakoien zapalkuntzapean zegoen Tibet armez hartu zuten baita ere. Txinako Errepublika Herrikoiak ez zuen autodeterminazio-eskubidea aitortu bere baitako nazioentzat, TxAKak bere programan jasotzen bazuen ere. Ez hori bakarrik, Mongolia osoa anexionatzeko ahaleginak ere egin zituzten.

Txinako Errepublika Herrikoiak, alta, bazuen berezitasun bat: Mao Zedong-ek ‘Demokrazia Berria’ deitutakoa ezarri zen, zeinetan Estatuak burgesia nazionala ere barne hartzen zuen, Alderdi Komunistaren zuzendaritzapean bazen ere. Beraz behargin eta nekazarien diktadura demokratikoari aurretiko fase bat ezartzen zuen. Stalin-ek hau ontzat eman zuen Txinan ekonomia artisauaren eta ekoizpen-harreman feudalen pisua zela eta. Geroago, burgesia “sozialismoan integratzearen” Mao-ren teoriei jarraikiz, hau proletalgoaren diktadurarantz aurrera egin ordez diktadura burgesan bilakatzea ekarri zuen. Honek eragina izan zuen inguruko prozesu iraultzaileetan.

Azkenik Kubako iraultza aztertuko dugu: XX. mendearen erdialdean AEBen menpeko diktadura militarreko herrialde erdi-koloniarra zen. Hasiara batean Fidel Castro-k iraultza demokratiko-burges gisa planteatu bazuen ere, garaipena eta gero inperialismo iparamerikarraren jarrerak (mertzenario bidezko inbasio-saiakera eta guzti) mugimendu iraultzailea ESSBra hurbildu eta Kuba Estatu “sozialista” gisa eratzea ekarri zuen. Tamalez, ESSB jada sozial-inperialista bihurtu zen eta Kuba industrializatzen lagundu ordez egoera kolonialean mantendu zuen, nazioarteko lanaren banaketa “sozialistaren” teoria berrikustzailearen aitzakipean.

ASKAPEN NAZIONALA ETA IRAULTZA SOZIALISTA

1935. urtean Komintern-aren VII. Biltzarrea egin zen, faxismoaren aurkako borrokaren erdian. Hainbat Estatu burges diktadura faxistaren menperakuntza-forma ezartzen ari ziren eta nazioarteko mugimendu komunistak bere taktika egokitzeko beharra zuen. Orduan agertu ziren independentzia nazionala iraultza sozialistarekin elkarlotzeko lehen aipamenak. Dimitrov komunista bulgariarrak, orduan Komintern-aren idazkari nagusi zenak, nazio zapalduko komunistek masa-mugimenduaren praktikan atzerriko uztarririk askatzearen alde borrokatu behar zutela esan zuen. Gainontzeko kokapenak berdin mantendu ziren.

“Burkideok! Internazionalismo proletarioa "egokitu" egin behar da, nolabait esateko, herrialde bakoitzean eta sustrai sakonak bota jaioterrian. Klase-borroka proletarioak hartzen dituen forma nazionalak, behargin-mugimendua herrialde bakoitzean, ez daude internazionalismo proletarioarekin kontraesanean; aitzitik, forma horien pean defenda daitezke proletalgoaren nazioarteko interesak arrakastaz baita ere.

(...) Aldi berean, agerian utzi behar dugu behargin-klasearen borroka propioen bitartez eta Alderdi Komunistaren ekintzen bidez, proletalgoa, mendekotasun ororen eta zapalkuntza nazional ororen aurka matxinatzean, askatasun nazionalaren eta herriaren independentziaren benetako txapeldun bakarra dela.

Proletalgoaren klase-borrokaren interesak aberriko esplotatzaile eta zapaltzaileen aurka ez daude lehian nazioaren etorkizun aske eta zoriontsu baten interesekin. Alderantziz: iraultza sozialista nazioaren salbazioa izango da eta goraldi bikainago baterako bidea irekiko dio.”

Komintern-aren VII. Biltzarreari txostena (1935) – Dimitrov

1939. urtean II. Mundu Gerratea hasi zen. Potentzia inperialista demokratikoei ahal zuten guztia egin bazuten ere inperialismo nazi-faxista ESSBren aurka bideratzeko, lehenik eta behin haien arteko gerra gisa hasi zen kolonien kontrolerako eta mundua menperatzeko. Honek okupazio multzo bat ekarri zuen Europan bertan, askapen nazionalerako mugimendu antifaxista sendoak sortuz. Komunistek zeresan handia izan zuten mugimendu hauetan, Komintern-aren zuzentarauak jarraituz hainbat kasutan nazio-askapen borrokaren buruan ipiniz. Langileriak gidatutako nazio-askapen mugimendu hauetan atzerriko okupatzaileen eta bertako oligarken aurkako borrokak elkarlotzen ziren.

Borroka iraultzaile hauek, ESSBko Ejertzito Gorriaren laguntzarekin batera, hainbat nazioetan Errepublika Herrikoiak ezartzea ekarri zuen. Demokrazia Herrikoiak, nahiz eta hasieran haien izaera oso argi ez izan (proletalgoaren diktaduraz desberdina zen zerbait, honen aldaera bat edo diktadura mota berri bat) azkenean proletaingoaren diktaduraren hasierako garapen-fase gisa definitu ziren. Ondorioz, behin komunistek masa langileen babesa ziurtatuta Estatu sozialista gisa egituratu ziren, baina ez ziren ESSBekin federatu. Honela historiak ezagutu duen Ereku Sozialista indartsuena eratu zen.

1941an jada, Stalin Alderdi Komunistak Komintern-aren Batzorde Betearazlearen menpeko sailak izatea, alderdi nazionalak izan ordez, mugimendu komunistaren garapenarentzat eragozpen bihurtu zela esaten hasi zen, eta haien herrialdeetako egitekoei heldu behar zietela beti Moskura begira egon ordez. Horrela nazioarteko antolakuntza komunista indartuko litzateke. 1943an, inperialista iparamerikarrek Europan faxismoaren aurkako bigarren frontea irekitzeko baldintza gisa jarri ondoren, Komintern-ak Alderdi Komunistek lortutako heldutasuna argudiatuz bere burua desegin zuen, sail guztien adostasunaz. 1947an Kominform-aren sorkuntza iragarri zen, Alderdi Komunista garrantzitsuenen artean informazioa eta esperientzia elkarbanatzeko nazioarteko tresna gisa.

II. Mundu Gerratea eta gero, AEBk gainontzeko potentzia inperialistak azpiratu zituen, haien koloniak bereganatuz eta bere tropen bidez okupatuz, eta mundu osoan zehar esku-sartzeari ekin zion sozialismoaren aurka eta haren aldeko indar atzerakoiak babesteko. Honen aurrean, Kominform-ak bere lehen biltzarran adierazi zuen komunistek atzerriko kapitalaren menperakuntzaren aurka eta subiranotasun nazionalaren alde kokatzen ziren abertzaleak babestu behar zituztela, baita hauen buruan ipini ere. Bereziki Frantzia, Italia eta Britainia Handiko Alderdi Komunistak aipatu zituen. Inperialismoaren bilakaerak nazio-auziaren garrantzia areagotu egin zuen Stalin-en begietara eta bere azken hitzaldian komunistek independentzia nazionalaren aldeko borroka gidatu behar zutela esan zuen.

“Lehen, burgesiak bere burua nazioaren lidertzat zuen, nazioaren eskubideak eta independentzia defendatzen zituen, eta edozerren gainetik ipintzen zituen. Orain ez da printzipio nazionalaren arrastorik geratzen. Orain, burgesiak nazioen eskubideak eta independentzia dolarren truke saltzen ditu. Independentzia nazionalaren eta subiranotasun nazionalaren bandera kareletik bota dute. Zalantzarik gabe, zuei dagokizue, Alderdi Komunista eta demokratikoen ordezkariak, bandera hori altxatzea eta aurrera eramatea, zuen herrialdeko abertzale izan nahi baduzue, nazioaren indar zuzendarian bihurtu nahi baduzue. Beste inork ezin du egin. (Txalo beroak).”

Hitzaldia Batasun Sobietikoko Alderdi Komunista (boltxebikea)ren XIX. Biltzarrean (1952) – Stalin
Esperientzia praktikoa gisa aldi horretako prozesu iraultzaile batzuk aztertuko ditugu.

Lehenengoa Txekoslovakia izango da. 1939. urtean Alemania naziak okupatu zuen, Txekia bereganatuz eta Eslovakiako menpeko Estatu sortuz. Hau Munich-eko Ituna (Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Germaniaren artekoa) eta gero izan zen, zeinetan germaniar jatorriko biztanleria (‘sudeteak’) aitzakiatzat hartuta faxista hitleriarrei hau egiteko baimena eman zioten. Naziek txekiarrak germanizatzeari ekin zioten asimiliazio, deserritze eta genozidioaren bidez.

1945ean ESSBko Ejertzito Gorriak herrialdea askatu zuen bertako gerrilla abertzaleekin batera. Garaipena eta gero germaniar guztiak herrialdetik kanporatu eta naziekin kolaboratu zuten oligarkak desjabetu zituzten. 1946an hainbat alderdiz (Alderdi Komunista barne) osatutako Fronte Nazionalak boterea hartu zuen eta Txekoslaviako Errepublika Herrikoia eratu zen. 1948an komunistek langileriaren indarrean oinarrituz boterearen mekanismo nagusiak lortu eta Estatu sozialista izatera igaro zen. Nahiz eta egiatan bi nazio izan, Europa mendebaldeko herrialde industrializatu batean nazio-askapen borroka iraultza sozialistarekin uztartu zuen prozesua izan zen hau.

Aztertuko dugun beste kasu bat Polonia izango da. 1939. urtean Alemania naziak Polonia okupatu zuen. 1942an sortutako Behargin-Alderdi Poloniarak ‘Goardia (aurrerago Ejertzito) Herrikoia’ sortu zuen ESSBren laguntzaz. Ejertzito Herrikoia ez zen Ejertzito Nazional burgesean sartu, nahiz eta unean uneko aliantzak ezarri. Borroka hau behargin eta nekazarien aliantzan oinarritzen zen eta kapitalista eta lurjabeen aurka zuzentzen zen, okupazio-indarren aurkako nazio-askapen guda iraultza sozialistarekin lotzeko.

1945ean ESSBko Ejertzito Gorriari esker herrialdea askatu eta komunistek Batzorde Nazionalaren boterea ezarri zuten, baina Londresen erbestean zegoen Gobernu burgesak ez zuen aintzatetsi. Estatu poloniar independentearen mugak birmoldatu ziren, mendebaldean (Germaniari irabaziz) zein ekialdean (Lituania, Bielorrusia eta Ukrainako zatiak galduz). 1947an Bloke Demokratikoak hauteskundeak irabazi eta gero Poloniako Errepublika Herrikoia aldarrikatu zen. 1948an BAP, bere baitako desbideraketa eskuindarra kanporatu eta gero, alderdi sozialdemokrataren ezkerrekin batu zen Behargin-Alderdi Poloniar Bateratua sortuz. 1952an Poloniako Errepublika Herrikoia ofizialki ezarri zen.

Hurrengo kasua Yugoslavia izango da. 1941ean Alemania naziak Yugoslaviako Erreinua inbaditu eta hainbat Estatu faxisten artean (Alemania, Italia, Bulgaria, Errumania, Hungaria) banatu zuen, baita bi menpeko Estatu sortu ere (Kroazia eta Montenegro). Yugoslavia Estatu multinazionala izan arren (jada existitzen ez zena), Yugoslaviako Alderdi Komunistak nazio-askapen borrokaren forman antolatu zuen borroka antifaxista eta horretarako Askapenerako Ejertzito Herrikoia edo Partisanoen Destakamenduak sortu zituen, Tito buru.

Partisano komunistek okupatzaile eta kolaborazionisten aurka borrokatu eta, aldi berean, ‘txetnik’ monarkikoei egin zieten gerra, biztanleria ez serbiarraren “garbiketa etnikoak” egiten zituztenak. Hala eta guztiz ere partisano gehienak serbiarrak ziren, aipagarria izanik emakumeen kopurua haien artean. Mugimendu hauek inperialista aliatuen babesarengatik lehiatu ziren, nahiz eta txetnikak faxistekin kolaboratu partisanoen aurka. 1943an YAKak Askapen Nazionalerako Kontseilu Antifaxista sortu zuen Londresen erbestean zegoen Gobernu monarkikoaren babesarekin.

ESSBko Ejertzito Gorriak Belgrado askatu eta gero partisanoek boterea lortu eta Yugoslaviako Errepublika Demokratiko Federatiboa ezarri zen 1945an. Hasieran monarkikoekin adostasunean izatea saiatu ziren baina azkenean inperialista britainiarrek erregeari babesak kendu zitoten, Tito-ren alde eginez. Hurrengo urtean Askapenerako Fronte Nazional Bateratuak, non komunistak beste alderdi batzuekin batera zeuden, hauteskundeak irabazi zituen (monarkikoei boikotatu zituzten) eta Yugoslaviako Errepublika Herriko Federatiboa ezarri zen. Honek ez zuen autodeterminazio-eskubidea errespetatu eta mazedoniar zein albaniarren bateratze nazionala ekidin zuen. Albaniarrek ez zituzten ezta nazionalitate gisa aintzatetsi, Kosova serbiar Errepublikako probintzia bihurtuz.

1948. urtean Kominform-ak YAK bere baitatik bota zuen bere zuzendaritzak haren akatsei buruz eztabaidatzeari harrokeriaz uko egiteagatik. Orduan Tito eta haren aginte-taldearen mozorroa erori eta inperialismoaren morroi gisa azaleratu zen. Titista arnegariek barne-errepresioa zabaldu zuten komunisten aurka “kominformista” salaketapean, ikara eta erailketen bitartez, askok Goli Otok kontzentrazio-esparruan amaitu zutelarik. Hau lehen berrikuskeria boterean izan zen, “autogestio

sozialistaren” izenean kapitalismoa garatu zuenak. Eremu Sozialistaren aurkako satorlanari ekin zioten, baita inperialismoaren oldarraldiak babestera ere (Grezian edo Koreako inbasioan adibidez).

Kasurik adierazgarriena Albania da. 1939. urtean Italia faxistak Albania okupatu zuen. 1941ean komunista albaniarrek haien Alderdia eratu zuten Enver Hoxha buru eta nazio-askapen borroka gidatzea erabaki zuten.

1942an nazionalista burgesek sortutako ‘Balli Kombetar’ antolakundeari nazio-askapen frontean sartzea eskaini zioten, baina hauek uko egin zioten eta pixkanaka okupatzaileen kolaborazionista gisa azaleratzen joan ziren herriaren begietara. Italiak Albania “bateratu” bazuen ere, AAKak Kosovon komunistak YAKan antolatzeko eskaera errespetatu zuen. Baina YAKaren zuzendaritzak ez zuen Kosovon nazio-askapen borroka sustatu nahi (ezta autodeterminazioaren aldarrikapena ere), eta azkenean komunista albaniarrek haiek egitea erabaki zuten.

1943. urtean germaniar naziek italiar tropak ordezkatu zituzten, Nazio-Askapenerako Ejertzittoa hegoaldera eta mendietara erretartzera behartuz, eta Balli Kombetar okupatzaile berrien zerbitzura jarri zen. Orduan Nazio-Askapen Guda Antifaxista haien aurka bideratu zen. Garai honetan gerrillari albaniarrek Kosovon bakarrik ez, baizik eta YAKak hala eskatuta Yugoslavian ere borrokatu ziren bertako partisoekin batera, komunista albaniarren internazionalismoa argi utziz.

1944ko amaieran herrialdea askatu zuten ESSBko Ejertzito Gorriaren laguntza zuzenik gabe. Fronte Demokratikoak (Alderdi Komunista eta beste gizabanako batzuek osatutakoa) hauteskundeak irabazi ostean Albaniako Errepublikak Herrikoia ezarri zen 1946an. Ordura arte aliatu izan ziren (nahiz eta gutxi lagundu) inperialista britainiar eta iparamerikarren aurrean tinko mantendu ziren, monarkia berrezartzen saiatu zirenak, baita hauek Grezian boterean ipinitako monarko-faxisten mehatxuen aurrean ere.

Txobinista yugoslaviarrak bestalde, Kosova gaineko zapalkuntza nazionala mantentzeaz gain, Albania osoa anexionatzen ere saiatu ziren. Berrikustzaile titistek hasieran hau AAK barneko jukutrien bidez lortu nahi zuten baina komunista albaniarrek, oso nazio txikia izan arren, beren independentziari eutsi zioten. 1948an Stalin-ek YAKako zuzendaritzaren ildo okerra salatzeke idatzi zuen lehen gutuna bidali zion Albaniako Lanaren Alderdiko (1947an Stalin-en gomendioz izena aldatu zioten) zuzendaritzari eta honela haien plana bertan behera geratu zen.

ABERTZALETASUNA ETA INTERNAZIONALISMO PROLETARIOA

Lenin-ek nazionalismo burgesa, beharginak banatzen zituen, eta internazionalismo proletarioa, nazioarteko langileriaren interesak defendatzen zituen, aurkaritza bateraezinean kokatzen zituen. Ondorioz langileriak nazionalismo ororen aurka borrokatu behar zuen, hala “propioa” nola besteena. Halere nazio zapaltzaileetako nazionalismoa eta nazio zapaldukoena desberdintzen zituen, azken honen eduki demokratikoa babestu behar zela esanez, baina burgesiaren politika defendatu gabe.

Lenin-en arabera kultura nazional (eta ondorioz kontzientzia nazional) bakoitzean bazueden, alde batetik, kultura demokratiko eta sozialistaren osagaiak, masa langileen kulturarenak. Baina bestetik, bazegoen kultura burgesa eta gainera hau nagusi zen kultura nazionalan. Beraz langileriaren nazioarteko kultura defendatzerakoan osagai sozialistak hartu behar ziren, kultura burgesari kontrajarriz, eta nazio desberdinenen kultura sozialisten arteko lotura indartu. Kultura nazionala orokorrean defendatzea, edo nazio zapaltzaileakoari orokorrean kontrajartzea, nazionalismo burgesean jaustea zen.

Kapitalismoaren garai inperialistan Lenin-entzat potentzien txobinismoaren eta nazionalismoaren aurka borrokatzeko beharrak garrantzia hartu zuen.

Hori bai, Lenin errusiar “handien” -“txuriez” (bielorrusiarrek) eta “txikiez” (ukrainiarrek) desberdintzeko- “harrotasun nazionalaz” ere mintzatu zen honela izendatutako artikuluan. Sentimendu honek askatasunaren eta sozialismoaren alde borrokatzen zuen klase iraultzaile bat zuen oinarri, eta ez tsarrei, lurjabeei eta kapitalistei mendekotasuna. Horregatik Errusia errepublikano eta demokratiko baten eta honek zapalduetako nazioen autodeterminazio-eskubidearen alde borrokatu behar zen.

“Arrotza al zaigu guri, proletario kontziente errusiar handiok, harrotasun nazionalaren sentimendua? Noski ezetz! Gure hizkuntza eta gure aberria maite ditugu, ahalegin guztiak egiten ditugu haren masa langileak (hau da, bere biztanleriaren bederatzi hamarrenak) demokraten eta sozialisten bizitza kontzientera jaso daitezen. (...) Errusiar handien harrotasun nazionalaren interesa (morroi-eran ulertu gabe) bat dator proletalگو errusiar handiaren (eta gainerako proletario guztien) interes sozialistarekin.”

Errusiar handien harrotasun nazionala (1914) – Lenin

Urriko iraultza sozialista eta gero Lenin Errusiaren eta Errepublika sobietikoaren aldeko “abertzaletasun iraultzaileaz” ere mintzatu zen.

Stalin-ek ere nazionalismoa eta internazionalismoa kontrajartzen zituen, “Errusiako” mugetan betiere. Nazionalismoa burgesiaren ideologia zen, merkatuan lehenik ikasten zuena. Langileria honen atzetik joatea heldutasun kontua zen, proletalگوak bere bandera propioa zuelako, internazionalismoarena. Halere nazionalismoa “goitik” eta nazionalismoa “behetik” desberdintzen zituen, azken hau txobinismoa ere bilakatu zitekeena. Errepresio nazionalista arriskutsua zen baita ere langileriaren arreta klase-borrokatik auzi nazionalera desbideratzen zuelako.

Stalin-en arabera nazio zapaltzaileko langileria, errusiarra zehazki, nazionalismoz sendatuagoa zegoen, eta hau arriskutsuagoa zen “kanpoaldeko” nazio zapalduetan. Lenin-ekin izandako eztabaiden harira bere kokapena aldatu zuen, arreta handiena nazio zapaltzaileko txobinismoan ipiniz. Edonola ere, Stalin georgiarra izanda ere “marxista errusiarren” izenean hitz egiten jarraitu zuen.

Gorago ikusi dugun bezala, inperialismoaren bilakaera zela eta, azkenean komunistak abertzale izan behar zirela esaten amaitu zuen. Orduan nazionalismoa burgesiaren edo Eremu Sozialistaren aurkako politika izendatzeko erabili zuen.

Komintern-ak nazionalismoa eta internazionalismoa kontrajartzeko ildo bera jarraitu zuen, batzuetan joera ekonomizistetan eroriz. Baina VII. Biltzarrean bere presidente zen Dimitrov honela mintzatu zen nihilismo nazionalari buruz:

“Gu, komunistok, printzipioz, nazionalismo burgesarren etsai adiskidezinak gara, bere forma eta aldaera guztietan. Baina ez gara nihilismo nazionalaren aldekoak, eta ezin dugu inoiz hala jokatu. Beharginak eta langileak internazionalismo proletarioaren espirituan hezteko eginkizuna Alderdi Komunista guztien funtsezko zereginetako bat da. Baina uste duenak horrek ahalbidetzen diola, eta are gehiago, behartzen duela masa langile zabalen sentimendu nazional guztiei aurpegira tu egitera, oso urrun dago benetako boltxebismotik, eta ez du ezer ulertu auzi nazionalari buruzko Lenin-en irakaspenetatik.”

Komintern-aren VII. Biltzarreari txostena (1935) – Dimitrov

Aurrerago, Alderdi Komunista Bulgariarraren eztabaiden baitan, Dimitrov-ek nazionalismoa eta abertzaletasuna kontrajarri zituen.

Ho Txi Minh argiago mintzatu zen honetaz, benetako abertzaletasuna internazionalismo proletarioaz banaezina zela esan zuenean.

“Zentzu zabalago batean, birbateratze nazionalaren aldeko borrokan, Vietnameko Langileen Alderdia ez du inoiz bere burua alderdi neba-arrebetatik isolatu, bere jardun osoan frogatu du benetako abertzaletasuna ezin dela inoiz bereizi internazionalismo proletariotik, eta borrokalari guztien arteko senide-aliantza kausa komun batengatik - gizateriaren askapena, klaserik gabeko gizarte baten eraikuntza, aldi bereko izate baketsua eta bake iraunkorra – hauskaitza dela.”

Batasun ideologikoaren sendotze eta garapena Alderdi marxista-leninisten artean (1956) – Ho Txi Minh

Komunista albaniarrak ere honen inguruan mintzatu ziren, haien herriko abertzaletasuna, klase-borroka iraultzailearen eta langileriaren alderdiaren bitartez, abertzaletasun proletarioa bilakatu zela esanez.

Kominform-ak kosmopolitismoa herrien izaera ahultzeko eta errazago zapaldu ahal izateko burgesia inperialistaren tresna gisa ezaugarritu zuen. Beraz honen ideologia nazionalista (edo txobinista) ideologia kosmopolitarekin bilbatzen zuen bere menperakuntza-planak aurrera eramateko.

Langileriak, bestalde, honi aurre egiteko internazionalismo proletarioaren alde borrokatzeaz gain bere nazio propioaren abertzaletasuna defendatu behar zuten.

Esperientzia praktikoa gisa ESSBren kasua aztertuko dugu, sozialismoaren defentsarako gerrari ‘Aberri Gerrate Handia’ deitu baitzioten.

1941. urtean inperialismo nazi-faxistak ESSB erasotu zuten. Honen aurrean autoritate sobietikoek Aberri sozialistaren defentsa antolatu zuten. Honen aldeko propaganda Errusiako antzinako historian oinarrituz egin zuten, batez ere Napoleon-en aurkako gerran, masen abertzaletasuna indartzeko xedez. Hau internazionalismo proletarioarekin eta antifaxismoarekin elkarlotzen zen.

Nazi germaniarrek okupatutako lurraldeetan nazio-askapenerako gerrillak antolatu ziren baita ere, baina ESSBko herrien arteko batasuna azpimarratuz eta errusiarra “neba-arreba nagusia” gisa aurkeztuz. ESSBk ahal zuen neurrian gidatzen zituen gerrilla hauek okupatzaile nazi-faxisten eta hauek errekrutatutako kolaborazionisten aurka, Ejertzito Gorriaren operazioekin bateratuz. Bielorrusia adibidez ia guztiz askatu zuten ejertzito erregularra iritsi baino lehen. Naziekin elkarlanean altxamenduak abiarazi zituzten herri osoen erbesteratzeak ere egon ziren (guda zibil iraultzailean ere gertatu zen zerbait).

1944. urtean ESSBko ereserki berria atera zuten, zeinetan “Errusia Handia” Batasunaren erdigunetzat aipatzen zen. 1945ko Garaipen Egunean topa egiterako orduan, Stalin-ek errusiar herriari eskaini zion hau borrokaren buruzagitzat aurkeztuz, milioika hildakoen gehiengo zabala pairatu baitzuen. Esan beharra dago gerratea amaitu ondoren errusiarzalekeria honek behera egin zuela.

Germaniak Molotov-Ribbentrop ituna hautsiz Polonia inbaditu zuenean jada gauzatu bazen ere, garaipena eta gero ESSBri Estonia, Letonia, eta Lituaniako Errepublika Sobietikoak gehitu zitzaizkion. Poloniaren eskuetan geratutako Ukrainako eta Bielorrusiako zatiak haien Errepubliketara gehitu ziren baita ere. Kasu hauetan, haien arteko sarraski txobinistak zirela eta, biztanleriaren lekualdaketa masiboak egon ziren nazionalki homogeenak ziren herrialdeak sortzeko.

SOZIALISMOAREN ERAIKUNTZA HERRIALDE BAKOITZEAN

XX. mendearen hasieran kapitalismoa bere fase inperialistan sartu zen, kapitalismo monopolista bilakatu zen, mundu osora hedatu zen eta bere ‘garapen desberdinaren legea’ agerikoa bihurtu zen. Hemendik Lenin-ek ondorioztatu zuen baldintza historiko hauetan iraultza sozialista herrialde aurreratuenetan ez baizik eta “katearen katebegi ahulenean” eman zitekeela, hots, baldintza politiko egokienak zituen herrialdean (edo multzo batean).

"Garapen ekonomiko eta politikoaren desberdintasuna kapitalismoaren lege absolutua da. Hortik ondoriozta daiteke sozialismoak lehenik herrialde kapitalista batzuetan edo herrialde bakar batean modu isolatuan ere garaitu dezakeela.

Herrialde honetako proletalgo garailea, kapitalistak desjabetu eta bere barnean ekoizpen sozialista antolatu ondoren, gainerako mundu kapitalistaren aurka altxatuko litzateke, bere altzora gainerako herrialdeetako klase zapalduak erakarriz, haietan kapitalisten aurkako matxinada altxatuz, armen indarra ere erabiliz, behar izanez gero, klase esplotatzaileen eta haien Estaturen aurka. Burgesia uzkailez proletalgoa gailenduko den gizartearen forma politikoa errepublika demokratikoa izango da, nazio horretako edo nazio horietako proletalgoaren indarrak gero eta gehiago zentralizatuko dituen oraindik sozialismora igaro ez diren Estaturen aurkako borrokan. Ezinezkoa da klaseak ezabatzea klase zapalduaren, proletalgoaren diktadura gabe. Nazioen batasun askea sozialismoan ezinezkoa da errepublika sozialistek borroka temati eta gutxi gorabehera luzerik egin gabe Estatu atzeratuen aurka."

Europako Estatu Batuen kontsignaren inguruan (1915) – Lenin

Honek Trotski mentxebikearekin eztabaidatzera eramanez, bere “iraultza etengabearen” teorian hau lehenik Mendebaldeko herrialde garatuetan (batik bat Germanian) eman behar zela zioenak.

"Aniztasun bera agertuko da gaur egungo inperialistotik biharko iraultza sozialistara gizateriak egin behar duen bidean. Nazio guztiak iritsiko dira sozialismora, hori saihestezina da, baina ez dira modu berean iritsiko; haietako bakoitzak bere elementu bereziak emango dizkio demokraziaren forma bati edo besteari, proletalgoaren diktaduraren aldaera bati edo besteari, bizitza sozialaren alde ezberdinen eraldaketa sozialisten erritmo bati edo besteari."

Marxismoaren karikaturari eta “ekonomismo inperialistari” buruz (1916) – Lenin

Errusiako Urriko iraultza sozialista sobietikoa eta gero, boltxebikeek iraultza beste herrialdeetara hedatzea espero zuten. Komintern-aren II. Biltzarrean ezkerkeriari buruz aurkeztutako lanean, Lenin-ek nazio desberdinentzako berariazko taktikaren beharra azpimarratu zuen.

"Herrien eta herrialdeen artean nazio- eta estatu-desberdintasunak dauden bitartean – eta desberdintasun hauek proletalgoaren diktadura maila unibertsalean ezarri eta askoz geroago ere iraungo dute –, herrialde guztietako behargin-mugimendu komunistaren nazioarteko taktikaren batasunak ez du eskatuko aniztasun eta berezitasun nazionalen ezabapena – gaur egun amets zentzugabea dena –, baizik eta komunismoaren oinarritzko printzipioen – Botere Sobietikoa eta

proletalgoaren diktadura – halako ezarpena, printzipio horiek beren xehetasunetan zuzenki aldatzen dituen, moldatu eta desberdintasun nazional eta nazional-estataleiei egoki aplikatzen diena.”

“Ezkerkeriaren” haur-gaixotasuna komunismoa (1920) – Lenin

ESSBn, guda zibil iraultzaileak eta esku-sartze inperialistak utzitako txikizioaren, eta herrialdearen gehiengoa funtsean nekazaria izatearen ondorioz, ‘NEP’ (Politika Ekonomiko Berria) ezarri zen, zeinetan kapitalismoa muga batzuen barnean onartzen zen. Orduan Lenin-ek industriaren nazionalizazioaren, proletalgoaren diktaduraren Estatu-kapitalismoaren bitartez, eta landa-eremuan kooperatibizazio bidezko kolektibizazioaren bitartez, Sozialismoaren eraikuntzari ekitea posible zela esan zuen. Aurrerago planifikazioaren beharra ere azpimarratu zuen.

"Hain zuzen ere, Estatuaren esku dauden ekoizpen-baliabide handi guztiak, eta proletalgoaren esku dagoen botere hori, horren aliantza milioika eta milioika nekazari txiki eta oso txikirekin, azken horien zuzendaritza proletalgoak egikaritzen duen bermea, eta abar. ez al da gizarte sozialista osoa eraikitzeko behar den guztia, kooperatibismotik abiatuta, haren bidez bakarrik, lehen merkantilismotzat jotzen genuen eta orain NEPen menpean hein batean trataera bera mezeri duen kooperatibismo horretatik abiatuta? Hori oraindik ez da gizarte sozialistaren eraikuntza, baina bai eraikitzeko ezinbestekoa eta nahikoa den guztia."

Lankidetzari buruz (1923) – Lenin

Trotsky-k ekoizpen-endarrek nazio-Estatuen mugak gaintzen zituztela, eta batez ere Errusiako ekonomia atzeratua zela eta, Sozialismoa eraikitzea ezinezkoa zela barreiatzen hasi zen. Ondorioz kapitalismoa eta inperialismoak sortutako nazioarteko lanaren banaketa iraunarazi behar omen zen proletalgoaren diktadura mundu osoan (Mendebaldean oroz gain) agindu arte. Herrialde nekazari edota koloniarak industrializatzeko laguntza eta garapen ez-kapitalistaren fasea ere ukatzen zituen.

Stalin-ek, ordea, ‘Sozialismoaren eraikuntza herrialde bakar (edo multzo) batean’ ekitearen alde kokatu zen setio inperialistako baldintzetan. Honetarako ESSBko autoritateek, ekoizpen-baliabideen sozializazioa heburu, industria astunari lehentasuna eman, Bosturteko Planen araberrako zentralizazio eta planifikazio ekonomikoa ezarri, eta nekazaritzaren kolektibizazioa eraman zuten aurrera, klase-borroka landa-eremura eramanez. Azken hau Bukharin-en ildoan garaitu ondoren izan zen, landa-eremuan “burgesiaren integrazioa sozialismoan” defendatzen zuenak. Stalin-ek, Lenin bezala, hasieran mundu-mailako ekonomia sozialista bakarra defendatzen bazuen ere, aurrerago onartu zuen honetara heldu baino lehen ekonomia multzo bat baino gehiago sor zitezkeela.

“Baliteke hasiera batean ez ezartzea munduko erdigune ekonomikoa bakar bat nazio guztientzat, hizkuntza komun batekin, baizik eta zonako zenbait erdigune ekonomikoa, nazioen talde ezberdientzat, nazio talde bakoitzarentzat hizkuntza komun ezberdin batekin, eta ondoren soilik erdigune horiek batuko dira ekonomia sozialistaren munduko erdigune komun bakar batean, nazio guztientzako hizkuntza komun batekin.”

Nazio-auzia eta leninismoa (1929) – Stalin

Gramsci ere honetaz mintzatu zen bere ‘kartzeleko koadernoetan’, non Trotski-ren “iraultza etengabearen” teoriaren aurka kokatu eta Stalin-en ildoak babestu zuen:

“Nazioarteko izaera duen klase batek, geruza sozial hertsiki nazionalak (intelektualak) eta, askotan, nazionalak baino gutxiago direnak ere, partikularistak eta munizipalistak (nekazariak) gidatzen dituen aldetik, “nazionalizatu” beharra dauka zentzu batean, eta zentzu hau gainerakoan ez da oso estua, izan ere, mundu mailako plan baten arabera ekonomia baterako baldintzak eratu baino lehen beharrezkoa baita fase anitz igarotzea, zeinetan eskualde-konbinazioak (nazio multzoenak) askotarikoak izan daitezken.”

Internazionalismoa eta politika nazionala (1932) – Gramsci

Munduan Estatu sozialista berriak eratzen zihoazten heinean, hauetan Sozialismoaren eraikuntza aurrera eramateko jarraitu beharreko bidearen inguruan eztabaidak agertu ziren. Errepublika Herrikoiak ezartzen hasi eta gero, hauen eta ESSBren bidearen arteko desberdintasunen inguruan hurrengo ebatzi zuen Batasun Sobietikoko Alderdi Komunista (boltxebikea)k:

“Bi kasuetan, bidea industrializazio sozialistarena da, kolektibizazio sozialistarena, klase-borroka trinkoarena, klase esplotatzaileen ezabapenarena, behargin-klasearen eta nekazari langileen arteko batasunarena, zuzendaritza behargin-klasearena dela oinarri hartuta, beraz Alderdi Komunistak zuzendutakoa. Batasun Sobietikoak jarraitutako bidearen eta demokrazia herrikoiek jarraitu behar dituzten bideen arteko desberdintasunak hartu beharreko neurri zehatzen zenbait berezitasuni dagozkie, horiek gauzatzeko bitartekoei, mugimenduaren formei eta erritmoei. Baina desberdintasun horiek ez dute zalantzan jartzen funtsezko printzipioen identitatea. Aitzitik, funts komunak aitortzeak ez du esan nahi garapen historikoak zehaztutako berezitasunen gainetik pasa behar denik. Izan ere, zentzugabea litzateke Txekoslovakia herrialde industrialaren eta Albania herrialde nekazariaren artean dauden desberdintasunak ez ikustea.”

Demokrazia Herrikoiak (1949) – Naum Farberov

Halere, honek ez zuen esan nahi nazio bakoitzaren bidea zeharo desberdina zenik eta Sozialismoa lege unibertsalei muzin eginda eraiki zitekeenik. Hau kapitalismora zeraman desbideratze nazionalista izango litzateke. Honela, haien herrialdeak garatzeko ESSBk emandako laguntzari esker, Errepublika Herrikoiek gehienak Sozialismoaren bidean sartu ziren.

Esperientzia praktikoa gisa Sozialismoaren izenean kapitalismoa garatu zuten berrikuskeria kasu batzuk aztertuko ditugu:

Yugoslavian aginte-talde titistak estatizazio bidezko sozializazioa “maila beheerenez” jotzen zuen eta honi “autogestioa” kontrajartzen zion. Horregatik enpresa industrialak kooperatiba bihurtu eta unitate ekonomiko gisa funtzionatzen jarraitu zuten, hauetako ‘manager’-ak (iparamerikarretatik hartutako hitza) irabaziak haien artean banatuz. Planifikazioaren beharra ukatzen zuten, ekonomia merkatuaren bat-batekotasunaren eskuetan utziz. Deszentralizazioak bere Errepubliken arteko lehia piztu zuen, aberastasunaren banaketa zeharo desparekoa sortuz (Kosova adibidez guztiz txirotuta zegoen). Landa-eremuan ez zen kolektibizaziorik aurrera eraman (nahiz eta kanpaina demagokiko eta abenturazale batzuk egin) jabetza pribatua eta lan-indarraren esplotazioa mantenduz.

Yugoslaviako Errepublikak inperialistek subiranotasunaren truke emandako kredituengatik leporaino zorpetuta amaitu zuen.

Txinan Mao Zedong eta haren jarraitzaileek, “Stalin-en akatsak” zuzentzeko kontsignapean industria arinari lehentasuna eman zioten, ekoizpen-baliabideak merkantzia gisa tratatu eta planifikazio ekonomikoa baztertu zuten. Gainera, “berezitasun txinatarrak” aitzakitzat hartuta, burgesia txinatarra bere abertzaletasunaren ondorioz “sozialismoan integratuko” zela zioten. Ondorioz burgesia nazionalarekin enpresa mistoak sortu eta desjabetu gabe “fase sozialistara igaro” zirela baieztatu zuten. Ondoren, ustez “komunismora iristeko” balioko zuen “Aurrera Jauzi Handian”, nekazal-komunak sortzeari ekin zioten, baina sekulako porrota izan zen eta dena atzera bota behar izan zuten inolako autokritikarik egin gabe. Mao-k asmatutako “3 munduen” teoriaren aterkipean inperialismo mendebalderrera gerturatu eta gero, bere heriotza ondoren Txina kapitalismoaren egituretan guztiz integratu zen. Azkenean Txinako Errepublika potentzia inperialista bilakatu da.

ESSBn bertan, Stalin-en heriotza eta gero, Khrustxov-ek Estatu-kolpea eman eta “desestalinizazio kanpaina” abiarazi zuen kapitalismoaren berrezarpenari ekin ahal izateko. Honetarako nekazal-kooperatibei ekoizpen-baliabideen salmenta baimendu zuten, enpresak gero eta gehiago planetik kanpo funtzionatzen hasi ziren haien ekoizpena merkatura begira antolatuz, irabaziak zuzendarien artean banatzen zituzten eta lan-indarra merkantzia bilakatu zuten berriro ere. Honela mota berriko burgesia bat sortu zen.

Honek kanpo-politikan izan zuen eragina, sozial-inperialismo moduko bat emanez: herrialde koloniarrei zuzendutako kapitalen esportazioari ekin zioten, baina ez industrializatzeko xedeaz, baizik eta nazioarteko lanaren banaketa “sozialistaren” arabera haientzat onuragarria zen egoera neo-kolonialean mantentzeko. Inperialismoaren atzaparretatik askatzen ziren nazioetan Estatu burgesak ezartzen lagundu eta hauei “sozialista” deituz beraiek azpiratzera igarotzen ziren. Honek guztiak autodeterminazio-eskubidearen urraketara zeraman ezinbestean, okupazio militarra iristeraino.

Khrustxov-ek Kominform-a aldebakarki deuseztatu eta Tito-rekin berradiskidetu zen (honek ordainean Hungariako kontrairaultza saiakera eman zion), bere ildoan Eremu Sozialistan inposatuz. Berrikustzaileek “sozialismorako (kapitalismorako egiatan) bide nazionalak” sustatu zituzten, baina betiere haien Estatu-kapitalismo monopolistaren menpe jarraitzen zuten bitartean (Txinarekin haustura edo Txekoslovakiaren okupazioa hemen kokatu behar dira).

Albania izan zen, jasandako xantaia eta mehatxuen gainetik, urte luzez Sozialismoaren eraikuntzaren bidean mantendu zen herrialde bakarra. Baina ESSB desegiteko ‘Perestroikak’ abiarazitako uholde kontrairaultzailean Estatu sozialista gisa suntsitua izan zen.

NAZIOEN BAT-EGITEA ALA NAZIOEN EZABAPENA?

Lenin “asimilazioaren” (herri batek bere izaera galtzea beste nazio batena hartuz) alde agertu zen, hau kapitalismoaren aurrerapen historikotzat jotz. Bere esanetan hartu-eman ekonomikoaren beharrek beti Estatu bateko gehiengoaren hizkuntza ikastera behartuko zuten, eta horregatik langileriak nazioen asimilazio oro ospatu beharko luke, indarrez eta pribilegioetan oinarrituta egiten zena izan ezik. Lenin bortizkeria bidezko asimilazioaren aurka kokatzen zen, baina hau gabe nazioen arteko desberdintasunak desagertzea errazagoa zela uste zuelako, nazioen bat-egitea azkartuz. Horretarako autodeterminazio-eskubidea eta hizkuntzen berdintasuna (propaganda egitean ere) defendatu behar ziren. Beraz asimilazioaren aurka egotea nazionalismoan jaustea izango litzateke haren esanetan. Esan beharra dago gauza hauek kapitalismoaren garai inperialistaren ezaugarritzea baino lehenagoko gogoetak zirela, eta gehienbat bundistekin (“nazionalista” juduak) izandako eztabaidetan esan zituela.

Lenin-ek sozialismoan, baita honen ezarpen unibertsala eta gero, nazioak eta haien arteko desberdintasunak existitzen jarraituko zutela onartzen zuen. Zapalkuntza nazionalarekin amaitzearen helburua, haien arteko gerturatzea soilik ez, baizik eta bat-egitea ere zela zioen. ESSB sortzeko eztabaidetan (berak “autonomizazioa” deitzen zuena), Lenin-ek nazio zapaltzaileak historikoki ezarritako desberdinkeria orekatzeko beharraz mintzatu zen, baina hau kontzesio gisa ikusten zuen beste ezer baino gehiago.

Stalin-ek gogor kritikatu zuen asimilazio-politiken goratzea (Kautski txekiarren germanizazioaren inguruan bezala), inperialismoaren politika kontrairaultzaile gisa izendatuz. Gainera nazioen eta hizkuntza nazionalen egonkortasuna eta erresistentzia-indarra goraiatu zituen (Balkanetako nazioak asimilatzaile turkiarren aurka, nazio poloniarra errusifikatzaile tsaristen eta germanizatzaile prusiarren aurka, armeniarrek eta georgiarrek asimilatzaile turkiarren aurka...).

“Okerra litzateke pentsatzea desberdintasun nazionalen suntsipena eta hizkuntza nazionalen desagertzea munduko inperialismoaren porrotaren ondoren segituan gertatuko direla, kolpe bakar batez, goitik aldarrikatutako dekretu bati jarraikiz, nolabait esateko. Ezin da halako ikusmoldea baino ezer okerragorik egon. Nazioen bat-egitea goitik aldarrikatutako dekretu baten bidez, hertsapenaren bidez, egiten saiatzeak inperialistei jokia egitea esan nahiko luke, nazioen askapenaren lana zapuztea, nazioen arteko lankidetzeta eta adiskidetasuna antolatzeke egindako lan guztia hondatzea.

Politika hori asimilazio-politikari baliokidea izango litzateke. Badakizue, jakina, marxismo-leninismoaren armategian ez dagoela lekurik asimilazio-politikarako, herriaren aurkako politika delako, politika kontrairaultzailea, politika kaltegarria delako.”

Nazio-azua eta leninismoa (1929) – Stalin

Stalin-entzat kapitalismoa eraitsi ondoren sortutako nazioak, nazio sozialistak, nazio burgesen hondarrak oinarri bazituzten ere, hauek baino bizindar gehiago zuten eta trinkoagoak ziren klase-kontraesan adiskidezinek barrena jaten ez zirelako.

“Behargin-klasea eta bere alderdi internazionalista dira nazio berri hauek eraiki eta zuzentzen dituen indarra. Behargin-klasearen eta nekazalgo langilearen arteko aliantza nazioaren barruan, kapitalismoaren hondarrak ezabatzeko eraikuntza sozialista garailearen mesedetan; zapalkuntza nazionalaren hondarrak suntsitzea, nazioen eta gutxiengo nazionalen eskubide-berdintasunaren eta garapen askearen mesedetan; nazionalismoaren hondarrak suntsitzea, herrien arteko adiskidetasuna ezartzearen eta internazionalismoaren garaipenaren mesedetan; fronte bakarra nazio zapaldu eta eskubide betetasuna ez duten nazio guztiekin, anexio-politikaren eta gerra anexionisten aurkako borrokan, inperialismoaren aurkako borrokan: horrelakoa da nazio hauen fisionomia moral, sozial eta politikoa.”

Nazio-auzia eta leninismoa (1929) – Stalin

Stalin-ek bialdi desberdintzen zituen nazioen arteko desberdintasunen ezabapenaren, nazioen bat-egitearen eta hizkuntza komun baten eraketaren auzien inguruan: Sozialismoaren garaipena herrialde bakar batean eta Sozialismoaren garaipena mundu-mailan.

Lehen aldian zapalkuntza nazionalarekin amaitzen bazen ere, nazioen arteko desberdintasunek irauten zuten. Inperialismoaren existentziak, nazioak azpiratzeko bere joerarekin, ezinezkoa egiten zuen hauen bat-egitea. Aitzitik, aldi hau hizkuntza nazionalen goraldia izan behar zuen.

“Okerra litzateke pentsatzea proletalgoaren munduko diktaduraren garaiko lehen etapa nazioen eta hizkuntza nazionalen desagerpenaren hasiera izango dela, hizkuntza komun bakarraren eraketaren hasiera. Lehen etapa, zeinetan zapalkuntza nazionala behin betiko bukatuko den, ordea, lehen zapaldua zeuden nazioen eta hizkuntza nazionalen garapen- eta loratze-etapa izango da, nazioen eskubideen berdintasunaren ezarpenaren etapa, nazioen arteko mesfidantzaren ezabatzearren etapa, haien arteko nazioarteko loturak ezarpenaren eta finkapenaren etapa.”

Nazio-auzia eta leninismoa (1929) – Stalin

Bigarren aldian soilik, mundu-mailako ekonomia sozialista finkatzerakoan, hasiko ziren nazioen arteko desberdintasunak ezabatzen eta guztientzako hizkuntza mundutarra sortzen.

“Proletalgoaren munduko diktaduraren aldiko bigarren etapan soilik, munduko ekonomia sozialista bakarri eratzen doan heinean – munduko ekonomia kapitalista baten ordeztu –, etapa horretan soilik hasiko da hizkuntza komun baten antzeko zerbait eratzen, bertan soilik sentituko baitute nazioek, beren hizkuntza nazionaleraino gain, nazioarteko hizkuntza komuna izateko beharra, harremanak eta lankidetzak ekonomiko, kultural eta politikoa errazteko. Beraz, etapa horretan hizkuntza nazionalak eta nazioarteko hizkuntza komuna aldi berean existituko dira.”

Nazio-auzia eta leninismoa (1929) – Stalin

Hau hobeto azaldu zuen bere azken lanetako batean, non hizkuntza komunaren sorrera batzuk besteak zanzatuz gertatu ordez (historikoki izan zen bezala) hizkuntza nazionalen arteko elkarlanaren ondorio gisa ikusten zuen. Edonola ere, badirudi Stalin-ek ez duela kontuan hartzen hizkuntza bat baino gehiago hitz egitea posible dela.

“Hemen arazoak ez die bi hizkuntzari eragingo, zeinetatik borrokatik bata erori eta bestea garaile ateratzen den, baizik eta ehunka hizkuntza nazional, zeinetatik, nazioen lankidetzaren ekonomiko, politiko eta kultural luze baten ondorioz, hasieran zonalde-hizkuntza bakar aberastuagoak nabarmentzen joango dira, eta ondoren, zonalde-hizkuntzak nazioarteko hizkuntza komun batean elkartuko dira, jakina, ez dena izango ez germaniera, ez errusiera, ez ingelera, baizik eta hizkuntza berri bat, hizkuntza nazionalen eta zonaldekoen osagai onenak bereganatu izango dituenak.”

Marxismoa eta hizkuntzalaritzaren arazoak (1950) – Stalin

Esperientzia praktikoa gisa ESSB eta bereziki Georgia aztertuko dugu:

ESSBn, gorago ikusi dugun bezala ‘korenizazio’- (edo “sustraitze”-) politika eraman zen aurrera, Errepublika bakoitzeko hizkuntza nazionalak sustatuz. Ekialdeko herri batzuetan idatzizko lengoia eman zitzaien historian lehen aldiz. Hasieran alfabeto latino (Mendebaldeko Europan nagusiki erabilitakoa) erabili bazen ere (haien idazkera propioaz gain, georgierarena bezala), aurrerago alfabeto zirilikoaz (batez ere eslabiar hizkuntzek erabilitakoa) ordeztu zen.

Baina “desestalinizazioa” eta gero, Khrustxov-ek errusifikazio-politikak abiarazi zituen. Honetarako “herri sobietarraren” ideia zabaldu zuen, errusiar hegemoniaripeko kutsu kosmopolita zuena, nazionalitate guztien arteko desberdintasunak ezabatze helburuz. Errepublika guztietan errusiar hizkuntza ofizial bihurtu zuen eta eskoletan derrigorrez ezarri (hala ere hezkuntza elebiduna onartzen zen). Hedabideak ere nagusiki errusieraz ziren. Errusiarren lekualdaketa beste nazioetara sustatu zuen baita ere.

Georgiako Errepublika Sozialista Sobietikoan, 1956. urtean, Stalin-en eta Sozialismoaren defentsaren aldeko matxinada egon zen Tbilisi hiriburuan. Khrustxov-ek ejertzitza bidali eta hamarnaka hildako eraginez zantatu zuen. Oraingo honetan, autodeterminazio-eskubidearen urraketa Georgian Sozialismoaren eraikuntzarekin jarraitzea zapuztu, kapitalismoaren berrezarpena ezarri eta nazionalismoaren indartzea ekarri zuen.

ONDORIOAK

Kapitalismo inperialistaren gainjartzeak mundu osoan, nazio zapalkuntzaren forma zaharrak mantendu dituen arren, forma berriak ere garatu ditu. Kolonien burujabetzaren aintzatespen formalari ustiaketa ekonomiko era berriak gehitu dizkio, eta beste nazio eta Estatuak azpiratzeari aliantzen estaldura eman dio. Bere garapen desberdinaren legeari jarraikiz, Estatu batzuetan arazo nazional berriak sortzen ditu eta bere erreakziorako joeraren ondorioz beste hainbat larriagotu. Kasu batzuetan okupazio militarren eta anexioen bidez, eta beste kasuetan menpeko Estatu atzerakoiak sortzeko nazioak ere zatituz. Guzti hau langile-aristokraziaren babesarekin egiten jarraitzen du, erdigune inperialistan kontuan hartzeko pisua duena.

Horregatik autodeterminazio-eskubidearen defentsa nahitaezko betebeharra da komunista ororentzat, Mendebaldean zein Ekialdean, Ipar industrializatuan zein Hego erdi-garatuan, nazio txiki zein handietan. Hau beharrezkoa da nazioen arteko elkarkidetzaren harremanak sendotzeko eta nazioarteko langileriaren borroka indartzeko. Kasu bakoitzean babestu beharreko aukera, egoera zehatza dialektikoki aztertuz aurrerakoiena dena eta langileriaren interes politikoentzat onuragarriena dena izan beharko da.

Berebiziko garrantzia hartzen du subiranotasun nazionalaren defentsa, masa langileen kultura nazionalen sustapena, bereziki hizkuntza nazionaleri babesa, eta desnazionalizazio-politika asimilatzaileen aurkako borroka. Zentzu honetan abertzaletasunaren indartzea, batez ere nazio zapalduetan, iraultzaileen egitekoen artean kokatzen da. Izaera sozialista eta internazionalista duen kontzientzia nazional hau burgesiaren nazionalismoari eta txobinismoari kontrajarri behar zaio. Inperialismoak azpiratutako nazio-Estatuetan hau baliozkoa da ere, baina inoiz ez “bere” burgesia inperialistak zapalduetako nazioen aurrean.

Mugimendu nazional historiko edo indartsuak dauden herrialdeetan, komuniston egitekoa hauek zuzentzea da, egoera ekonomiko kontuan hartuz baina geografikoki desberdintasunik egin gabe. Erdigune inperialistan bertan, nazio-askapen mugimenduen jardunak nazio zapaltzaileetako langileriaren mugimendu politikoak baino borroka-maila altuagoak eta izaera iraultzaileagoa erakutsi izan du. Komuniston erantzukizuna da nazioaren indar gidaria bilakatzeko eta borroka iraultzaile hori Sozialismoaren ezarpenerantz bideratzea.

“Europako burgesia handiak, beste burgesia guztiek bezala, bere klase-interes eta interes nazionalen artean aukeratzekoan, azken hauek sakrifikatzea jotzen du beti. Hori dela eta, komunistek interes nazionalen defentsan borrokatu dute uneoro, iraultzaren eta sozialismoaren kausarekin estuki lotuta daudela ikusiz. (...) Gaur egun mugimendu iraultzailean nazio-auziak garrantzi berezia eta gorakada jarraian hartzeak batasun honen eta aliantza hauen lorpena laguntzen du.”

Eurokomunismoa antikomunismoa da (1979) – Hoxha

Nazio-askapen mugimenduek herri langilearen batasuna lortu behar dute Fronte Nazional edo Herrikoiaren bitartez, egoera politikoaren eta klase-borrokaren garapenaren arabera, borroka hau

oligarkiaren eta honen Estaturen aurkako borrokarekin elkarlotuz. Honetarako komunistek langileriaren aliantza ezarri beharko dute klase herrikoiekin, nekazalgoarekin eta burgesia ttipiarekin (landa-eremukoa edo herrikoia), baita hiriko burgesia ttipiarekin ere.

Herrialde erdi-, neo- edo koloniarretan, inperialismoaren aurkako askapen nazionalako fasean burgesia nazionalarekin aliantza bilatu badaiteke ere, boterea ezartzerako orduan honetan parte hartzea ekidin behar da, eta posible ez bada, ahalik eta azkarren kanporatzea Sozialismoaren eraikuntzari ekin ahal izateko. Nazioarteko egoeraren arabera, honetarako beharrezkoa den industrializazioa haien kabuz edo beste Estatu sozialisten laguntzarekin izan beharko da. Erdigune inperialistako nazio industrializatuetan, burgesia nazionala halakotzat ez badago ere, izan daiteke burgesia ez-monopolistaren geruza batzuk borroka honetara batzea.

Behargin-klaseak mugimendu iraultzailea zuzentzeko beharrezkoa du bere Alderdia, arlo teorikoan zein antolakuntzazkoan kualitatiboki gorena den antolakundea, Alderdi Komunista. Halere honek ez du esan nahi Estatu burges bakoitzeko Alderdi bat egon behar denik, hau herrialde bakoitzeko baldintzak kontuan hartuta finkatu beharreko zerbait da, kasu batzuetan nazionala izan daitekeena, beste batzuetan Estatu-mailakoa eta bestetan Estatu bat baino gehiagokoa (edo Estaturen mugetatik gain dagoena). Alderdi hauen arteko lotura biziki garrantzitsua izango da Sozialismoaren ezarpen unibertsalerako. Nazioartekoa den langileriak mundu-mailako antolakundea izan beharko du bere helburu politikoak lortzeko, Alderdi Komunisten Nazioarteko Antolakundea, alegia.

Sozialismoan zehar ere, kapitalismotik komunismo osora arteko iragate-aldian zehar, nazioen autodeterminazio-eskubidea errespetatzea garrantzitsua da oso. Autodeterminazioa da, aldi honetan egon daitezkeen atzerapen edo desbideratzeen aurrean, nazio bakoitzean luzarora Sozialismoaren eraikuntzan aurrera egitea ziurtatzeko bermerik onena: munduko ekonomia sozialistarako bidean eratu daitezkeen elkartze edo multzoetara batu ala banandu ahal izateko, Estatu independenteak ezarri ala beste nazioekin harreman federatiboak ezartzeko edo, Mundu Sozialista setio inperialista militar eta ekonomikoaren aurrean sendotzeko xedeaz, beste motako aliantzak egiteko. Zentzu honetan, potentzia inperialisten blokeen aurrean egitura politiko handiek eskaintzen dituzten abantailak kontutan hartu beharko dira, baina betiere egoera dialektikoki aztertuz, nazio bakoitzaren barne-kontraesanei lehentasuna emanaz eta kualitatiboa dena kuantitatiboaren aurretik ipiniz.

Aurrera langileria!

Bake faltsuari gerra!

Iraultza ala hil!

AMAIA